

hh
hik hasi

Andoni Eizagirre Eizagirre
'IkasLagun' egitasmoa
Hezkuntza soziolinguistikoa
EAEko hezkuntza lege berria eta euskara
Sarde Sardexka
Korrikaren unitate didaktikoak
Irati Ugalde Muniozguren



ADIMEN GAITASUN HANDIA

hili

Uxue Alberdi Estibaritz
Araiz Mesanza Iturritxa



*Bizirik gaudelako
pentsatzen dugu hiltzeaz.*

elkar

www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ADIMEN GAITASUN HANDIKO IKASLEAK

Berez badira 30 urte Adimen Gaitasun Handiko ikasleen arreta-premia bereziak jasota daudela gure hezkuntza sistemetan. Plan eta proposamen zehatzak egin ere egin dituzte. Haatik, aditu, formatzaile, hezitzaile eta familiak bat datoz: ez gizartean eta ezta hezkuntzan ere, ez da aski ezagutzen adimen handiko ikasleen errealitatea; AGH haurrak ezagutu eta artatzeko, sentsibilizazioa, hautematea eta esku-hartzea behar dira.

ELKARRIZKETA / 18

ANDONI EIZAGIRRE EIZAGIRRE

Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Filosofian doktorea da Andoni Eizagirre Eizagirre. Hezkuntzak askotariko beharrianak dituela dio, eta horien arabera diagnostikoa egin beharko litzatekeela euskal hezkuntza horien arabera antolatzeko. Gurasoek eskolarekiko gero eta espektatiba txikiagoak dituztela dio Eizagirrek eta EAEko Hezkuntza Legeari begira, akordioa lortzeko aukerak badirela uste du.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Azaleko argazkia:** Foku.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2022-1-24). Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Adimen Gaitasun Handiko ikasleek orain behar dituzte erantzunak

10 GAI NAGUSIA

Adimen Gaitasun Handiko ikasleak: Zaindu beharreko harribitxiak

20 ELKARRIZKETA

ANDONI EIZAGIRRE EIZAGIRRE

“Eskolarekiko espektatibak gero eta txikiagoak dira”

26 ESPERIENTZIAK

'IkasLagun' egitasmoa

30 EKARPENAK

Hezkuntza soziolinguistikoa

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Sarde Sardexka elkarte

36 GALDEIDAZU

EAEko Hezkuntza Lege berriari begira, marra gorriak jarri behar al dira euskarari dagokionez?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Korrikaren unitate didaktikoak

42 ATZEKO ATETIK

Irati Ugalde Muniozturen



Adimen Gaitasun Handiko ikasleek orain behar dituzte erantzunak

editoriala

EZ DA ERRAZA ULERTZEA ZERGATIK EZ DUTEN MEREZI DUTEN ARRETA JASOTZEN ADIMEN HANDIKO IKASLEEK, ORAINDIK ERE, EUSKAL HERRIKO IKASTETXEETAN. GAIA KONPLEXUA DA, BAINA SINPLEA ERE BAI.



Ez da erraza ulertzea zergatik ez zaien behar duten arreta eskaintzen Adimen Gaitasun Handiko ikasleei. Aspalditik ikertu eta dokumentatu da gaia nazioartean; zazpi lurraldeetan aitortu zaie heziketa premia berezarako daukaten beharra eta eskubidea; planak diseinatu dira, xehetasunez, diziplina ugariatako profesionalekin; ez da derrigor, edo ez bederen soilik, baliabide ekonomikoen arazoa; kopurua esanguratsua da, ikasleen % 3-4 superdotatua da adituen arabera, eta gaitasun handi espezifikoak edo talentuak kontuan izanik, % 10era ere iritsiko liriteke; Adimen Gaitasun Handiko pertsonen gizarteari egin diezaioketen ekarpena inportantea da; aldiz, adimen handiko haur eta nerabeen ezaugarri eta beharrei erantzuten ez zaienean, eskola-porrotean amaitzen dutenen datuak esanguratsuak dira (% 35-40, Almagiren arabera); gainera, euren izateko eta ikasteko ezaugarri bereziengatik ulertuak eta onartuak ez direnean, adimen handiko ikasleak jazarpenaren eta bazterkeriaren objektu potentzial bihurtzen dira. Ez da beraz, erraza ulertzea zergatik ez duten merezi duten arreta jasotzen adimen handiko ikasleek, oraindik ere, Euskal Herriko ikastetxeetan.

Konplexua da egoera, baina aldi berean, sinplea da gaia. Ikerlari, formatzaile eta hezitzaileak bat datoz: oroz gain, begirada

aldaketa da garrantzitsuena. Zabaldu begirada benetan gelan zer-nolako ikasleak ditugun ikusteko. Ez da aski guztiei kafetxea eskaintzea, batzuek kafea behar dute; besteek, esnea. Horrek adimen handiko ikasleentzat bezala, guztientzat balio du, erritmo mantsoagoa dutenentzat, edonolako sindromearen bat dutenentzat, sexu-genero hautu heteronormatibotik ateratzen ari denarentzat, beste jatorrietatik datozenentzat, guztientzat izango da aberasgarria bere hezitzaileek begirada zabaltzea, behar duten premia asetzeko, akademikoki aurrera egiteko, baina baita pertsonalki eta sozialki ere. Asko dago jokoan.

Sentsibilizazioa, hautematea eta esku-hartzea. Horiek dira bidean aurrera egiteko urratsak. Eta heldulekuak badaude: Jaurlaritzak egindako plana pilotatuzetik harago, zabaltzeko garaia da. Formazioa aukerak badaude (bereziki adimen handiko ikasleen familiek eskaini eta bultzatutakoa). Ereduak, bakanak izanagatik badaude, haiek egindako akatsetatik guztiek ikas dezakegu. Eta, oroz gain, ikasleek eurek erakutsiko dute nondik nora joan behar duten, zein diren motibatzen dituzten gaiak, eta bide-laguntza eskaintzea izango da hezitzailearen egitekoa. Baina lehenbailehen. Gai nagusiko aditu batek esan bezala, ume horiek orain behar dituzte erantzunak.

”Euskararen arazoa... politikoa da osoki”

Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardeg*

HILEKO IRUDIA





ONGI MEREZITAKO OMENALDIA

AEK-k eta Korrikak Pirritx, Porrotx eta Marimotots omendu dituzte, euskararen alde "azken 34 urteetan adierazi duten konpromisoagatik". Gure Zirkua-ren karpan egin zuten omenaldi-ekitaldia urtarrilaren 7an, Tolosan. AEK-ko kideek eta **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoko Mikel Agirrezabalak eman zizkieten oroigarriak Joxe Mari Agirretxeri, Mertxe Rodriguezi eta Aiora Zulaikari.

"Zuzeneko eragina izan dute ume eta guraso askok euskararen hautua egin dezaten. Haiek transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta behetik gora (ume-guraso) landu dute; haiek, haien hitzekin, euskarari ekin zioten, eta eutsi egin diote", nabarmendu zuen Korrikako koordinatzaile Asier Amondok.

Ekitaldian izan ziren euskalgintzako eragile ugari ere, hala nola Topaguneko lehendakari Kike Amonarriz, Bertsozale Elkarteko lehendakari Maialen Lujanbio, Behatokiko zuzendari Agurne Gaubeka, Ikastolen Elkarteko lehendakari Koldo Tellitu eta Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbao, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko, EH Bilduko, ELA, LAB eta Steilas sindikatuetako, Gure Esku-ko eta Udalbiltzako ordezkariak ere, besteak beste.

Argazkia: Tolosaldeko Ataria.
Tolosan, 2022ko urtarrilaren 7an

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HEZKUNTZAKO LANGILEEN GREBA IPARRALDEAN

Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako hezkuntza arloko langileek greba egin zuten joan den urtarrilaren 14an. Mila lagun inguru bildu ziren Baionako manifestazioan Parisen pandemia nola kudeatu duen salatzen eta baliabideak eskatzeko. Sindikatuek salatu zuten egunero 30-60 ikasgela inguru ixten direla irakasle ordezkoen eskasiegatik. Azken hilabeteetan handituz joan da hezkuntza komunitatearen haserrea eta Jean Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroak agindutako azken protokoloak eragin du eztanda. Besteak beste, ikasgela batean COVID-19 kasu positibo bat atzemanaz gero, ikasleek lau egunetan hiru test egiteko agindu zuen ministerioak, eta lehenengo test negatiboarekin ikasleak ikasgelara itzultzea. Irakasleen aburuz, prozedura horrek kudeaketa zailtzen du eta sindikatuek salatu dutenez, lan baldintzen okertzea dakar. Hezkuntzako langile gehiago kontratatzea eta ikasgeletarako ekipamendu egokia eskatu zituzten. LAB, FSU 64, SE-UNSA 64, FNEC-FP-FO 64 eta SNUipp-FSU 64 sindikatuek egin zuten greba deialdia eta bat egin zuten guraso elkarteek ere.



KATALUNIako HEZKUNTZA PROIEKTUEN IRAKASPENAK, EREDU

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko ordezkaritza bat Katalunian izan da urtarrilean bertako hezkuntza hitzarmenaren berri izateko eta zenbait eskola proiektu bertatik bertara ezagutzeko. Segregazioa da eragile gehienek aipatzen duten korapilo nagusia eta horri aurre egiteko Katalunian jasotako esperientziak nabarmendu dituzte Leixuri Arrizabalaga EAJko legebiltzarkideak, Ikoitz Arrese EH Bildukoak eta Iñigo Martinez Elkarrekin Podemos-IUkoak. Proiektu pedagogiko berritzailetan, aniztasunaren kudeaketan eta hizkuntzen trataeran jarri dute begirada eta helburua da han bildutako "irakaspenera, ahuleziak eta indarguneak" Hezkuntza Batzordeari helaraztea, ponentziak aurrera jarrai dezan.

HIZKUNTZA ETA SEGREGAZIOA, SINDIKATUEN KEZKA ITURRI

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza akordioari begira jarrita daude sindikatuak eta euren proposamenak ezagutarazi dituzte LAB eta CCOO sindikatuek. Hizkuntza ereduak "gaitzeta" proposatu du LAB sindikatuak. Hezkuntza akordioari begirako dekalgoa ondu dute eta indar "euskaltzale, feminista, ezkertiar, antirrazista eta eraldatzaileak aktibatzea" du helburu. Eskola publikoa ardatz duen "publikotasun berri" baten alde egin behar dela esan dute eta langileek parte hartzeko espazioak eskatu dituzte. Era berean, langileen aitortza eta baldintzen hobekuntza lortzeko ratioak jaitsi behar direla uste du LABek. CCOO sindikatuak, bestalde, segregazioari aurre egiteko hamalau proposamen egin ditu. Euskara lehenetsi nahi dute, baina gainerako hizkuntzak alde batera utzi gabe. Haien ustez, egoera ahulenean dauden ikasleak sare publikoko eta itunpeko sareko ikastetxeen artean banatu beharko lirakeke. Sindikatuak matrikulazio prozesuak aldatzearen alde egin du, eta "bidezkoagoa" izango den sistema horretan parte hartzeari uko egiten dioten itunpeko eskolei pixkanaka finantzaketa publikoa kentzeko eskatu du. Kuotak debekatzeko ere eskatu dute: "Borondatezko kuotak iruzur hirukoitza dira, Hezkuntza Sailak onartzen dituelako, familia gehienek ez dakitelako ez direla nahitaezkoak, eta nahi ez dituzten ikasleak baztertzeko erabiltzen direlako".

HIZPIDE IZANGO DA

HERRI URRATSEN ITZULERA

39. Herri Urrats Senpereko (Lapurdi) lakuaren inguruan egitea espero dute Seaskako arduradunek datorren maiatzaren 8an. Pandemiak eragindako bi urteko hutsu-nearen ondoren *Itzulera* izango da aurtengo leloa, eta zapata batek irudikatuko du. Kantua Zetak taldeak egin du, eta udaberrian aurkeztuko dute. Seaskak 2023ko ikasturterako ireki nahi duen bosgarren kolegioa eraikitzeke izango da bildutako dirua. Ziburuko Piarres Larzabal kolegioa txiki geldituenez, 2023ko ikasturte hasierarako Senperen kokatuko den bosgarren kolegioa prest izatea nahi luke Seaskak. Bernat Etxepare lizeoko zuzendari izan zen Guillermo Etxebarria omendu nahi izan zuten Herri Urratsen aurkezpenean, urrian hil baitzen Herri Urrats bestaren bultzatzaile izandakoa. Eta horrekin batera, pandemia garaian ikasleek egindako ahalegina nabarmendu zuten.



IRAKASLE IKASKETETARA SARTZEKO AZTERKETA

Aurrerantzean, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleek azterketa egin beharko dute autonomia erkidegoek Espainiako Gobernuak Hezkuntza Ministerioaren proposamena onartuz gero. Irakasle ikasketak egin ahal izateko, aurrez azterketa bat egitea proposatu du Madrilera eta proba horrek komunikazio gaitasuna, arrazoiketa kritikoa eta gaitasun logiko eta matematikoak ebaluatuko lituzke, irakasle izateko jarrerarekin eta konpetentziekin batera. Era berean, 12 urte baino gehiago dituzten ikasle irakasle izateko masterrera sartzeko proba bat ezartzea aztertzeke moduko gaia dela jasotzen du proposamenak. Praktika aldiari ere garrantzi berezia eman nahi diote, eta praktikak unibertsitateko ikasketekin uztartuz egitea proposatu dute. Horrekin batera, irakasle berriek hezkuntza publikoan arituko diren lehen urtean praktikan aritzea nahiko lukete.

HEGO EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA EREDUETAN OINARRITURIKO SISTEMA GALESEN

Galesko gobernuak eskoletan ere galesera bultzatu nahi du eta bide horretan, Hego Euskal Herriko hizkuntza eredueta oinarritutako sistema ezarriko du datorren ikasturtean hango ikastetxeetan. Galesko Hezkuntza Ministerioak iragarri duenez, irailtik aurrera hiru eredu eskainiko dituzte hango ikastetxeek, Hego Euskal Herriko A, B eta D eredu

baliokide izango direnak. Jeremy Miles Hezkuntza ministroak adierazi du orain arte izan duten sistema gurasoentzat oso nahasgarria dela, eta horregatik hartu dutela berau aldatzeko erabakia. Galeseraren aldeko Cymdeithas yr Iaith Gymraeg taldeak ontzat eman du ministroaren erabakia, ikasle guztiak galeseraz mintzatzeko bidean pauso egokia dela iritzita.



Argazkiak: Foku

Berez badira 30 urte Adimen Gaitasun Handiko ikasleen arreta-premia bereziak jasota daudela gure hezkuntza sistemetan. Plan eta proposamen zehatzak egin ere egin dituzte diziplina ugaritako profesionalen artean. Berriena Eusko Jaurlaritzak 'Adimen-gaitasun handiko ikasleen hezkuntza-arreta emateko Plana 2019-2022' dokumentu mamitsu eta zehatza ondu du, baina pilotatzetik harago, ez da modu orokortuan ezarri. Aditu, formatzaile, hezitzaile eta familiak bat datoz: ez gizartean eta ezta hezkuntzan ere, oraindik ez da aski ezagutzen adimen handiko ikasleen errealitatea; AGH haurrak ezagutu eta artatzeko, sentsibilizazioa, hautematea eta esku-hartzea behar dira. Bakanak dira hiru urrats horiek modu sistematizatuan eta protokolizatuan egiten duten ikastetxeak. Erreferente den San Luis La Salle ikastetxea ezagutu du **Hik Hasik**.

GAIA:

Zaindu beharreko harribitxiak

Adimen Gaitasun Handiko ikasleak

ragan mendearen erdialdetik ikertu eta idatzi da Adimen Gaitasun Handiko pertsonen buruz, baina, oraindik ere, hala gizartean nola hezkuntzan, oro har, gai ezezaguna da AGH Adimen Gaitasun Handia. Erreportaje hau egiteko hainbat ikastetxetako atea (telefonoa) jo du **Hik Hasik** eta “hemen ez daukagu halako ikaslerik” erantzun dute behin baino gehiagotan, edo “ez dugu ezer berezirik egiten”, edo “hemen zerbait egiten da, baina irakaslearen arabera”... Adituak eta familiak bat datoz: gai honen inguruan ezezagutza da nagusi. “Gaiari ez zaio oraindik ere behar bezala eutsi, eta hor arazoa dugu”, dio Yolanda Olasagarrek, jardunean ari diren irakasleen prestakuntzan dihardu EIBZ Nafarroako Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan eta AGHri buruzko formazioa eman izan du. Izaskun Etxebarria Aizpuru EHuko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakaslea eta *Izena duena da. Adimen gaitasun handikoak* (Utriusque Vasconiae, 2018) liburuaren egilea ere bat dator, eta haren ustetan, gizartean eta hezkuntza-esparruan oraindik ere indarrean dauden iritzi, uste oker eta aurreiritziak dira gaiari behar bezala heltzeko oztopo nagusiak. Bi adituek gaiari buruzko bloga ondu dute elkarrekin ([*eus*\), eta gaira hurbiltzeko nahiz gai sakontzeko informazio baliagarria apailatu dute.](https://adimengaitasunhandiak.</p>
</div>
<div data-bbox=)

Berez, 30 urte badira gurean AGH ikasleen arreta-premiak jasota daudela. Etxebarriak liburuan zehazten duen eran, 1993ko Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa sortu zuen ikasle horiei laguntzeko. Hiru urtera, 1996ko dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-premia berezien trataeran eta eskola anitzaren, muin bakarraren eta integratzailearen esparrutik beharrezko diren neurri batzuk arautu zituen, oinarritzko irizpideak ezarriz eta curriculumaren egituratze bereziaren bidez, hezkuntza esku-hartze desberdinak proposatuz. Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan, Frantziako Hezkuntza Ministerio Nazionalak 2002an argitaratutako *La escolarisation des élèves intellectuellement précoces* txostenak arautu zuen ikasle hauen egoera. Berriena, Eusko Jaurlaritzak *Adimen-gaitasun handiko ikasleen hezkuntza-arreta emateko Plana 2019-2022* dokumentu mamitsu eta zehatza ondu du, pilotatuzetik harago, modu orokortuan martxan jarri ez dena. Legeak aitortzen eta aldarrikatzen dituen eskubideak garatuzetik urrun dago, bada,

GAIA: ZAINDU BEHARREKO HARRIBITXIAK

Adimen Gaitasun Handiko ikasleak

errealitatea, Etxebarriaren aburuz: “Lege aldetik eman den aurrerapena nabarmena den arren, Adimen Gaitasun Handien trateran badira tartekoak izan arren ezinbestekotzat hartu beharreko neurriak. Irakasleen prestakuntza eta talde multiprofesionalen espezializazioa zutabe garrantzitsuak dira. Irakasle-gaien, zein Pedagogia, Psikopedagogia eta Psikologia ikasketetan, nekez lantzen den arloa da, euren curriculometan eta irakasgaien eskaintzan dagoen hutsune nabarmenek erakusten dutenez. Gauza bera esan daiteke gaurkotze eta gradu ondoko ikastaroei buruz. Egoera honen aurrean oso zaila da adimen handiko ikasleak eskolan antzematea, euren ezaugarriak ulertzea, dituzten premiei erantzutea edo eskuhartze programarik aurrera eramatea”. Hezitzaileen formazioan dago, beraz, gako garrantzitsuetako bat, hala ikusten dute familiek ere. Alabaina, Olasagarrek zehaztu du “gaiarekiko ezagutza orokorra” izateko adina prestakuntza “erraz” jaso daitekeela, eta “egingarria” dela. “Begirada zabaltzea da gako garrantzitsuetako bat, ondoren, prestakuntza berezitua, kasuan kasu, plan bat eginez eta irakasleen babesean eta irakasleei horretan lagunduz egitea komeni da”.

Uste okerrak

Baina gaia ezagutzen hasteko, AGH pertsonen buruzko aurreiritzi eta uste okerrak desegin behar dira, benetako beharrik eta esku hartzeak ezagutzeko. Gizartean eta eskoletan, oraindik ere, AGH pertsonen buruzko “irudi estereotipatuak eta okerrak” baitira nagusi familien eta adituen arabera. Hallaghan eta Kofman autoreek 1994rako jaso zituzten AGHren inguruan indarrean zeuden hainbat mito, gaur arte mantentzen direnak: eskolan arrakasta izaten duten pertsonak direla; laguntza berezirik gabe eginkizun guztiak ondo egiten dituztela; ikaskideen artean berehala identifikatzen direla; nortasun aldetik arraroak, ahulak edo ezegonkorak direla; harreman sozialetan ez dutela arrakastarik... Komunikabideen eragina ere esanguratsua da, Etxebarriaren ustez, Adimen Gaitasun Handia genialtasunarekin parekatzeak errealitate hori ulertzea eta ezagutzea zailtzen du.

Aurreiritzi eta uste oker horiek eragin zuzena daukate AGH haurrengan. “Hezkuntza sistema oraindik ere oso hertsia da eta guztiei gauza bera eskatzen zaie. Aldiz, pertsona batek ikasteko beste erritmo bat eta beste sakontasun bat dituenean preso sentitzen da sisteman eta bere izaera ukatu egiten zaie,

eurengan zerbait txarto dagoela sentitzeraino, badakiten hori behin eta berriro egitea errepikarazten dietenean, adibidez, gauzak ez dituztela ongi ulertzen sentitzen dute”.

Adimen Gaitasun Handikoen ezaugarriak

Adimen handiko pertsonen ezaugarriak ezagutarazi aurretik, adituen arabera komenigarria da ulertzea ez daudela adimen handiko bi pertsona berdin, “heterogeneotasuna nabarmentzen da guztiz, beste edozein pertsonarekin gertatzen den bezala, ez daude adimen handiko pertsona bi berdin”, azaldu du Etxebarriak.

Adimen handiko pertsonen garapen, kognizio, sormen, ikaskuntza-era eta arlo emozional eta sozialetik dituzte ezaugarri bereziak. Nolakotasun bereizgarri lehenetako bat ingurunea beste modu batera hautematea da. “Mundua beste era batera ulertzen dute, zentzumen guztiekin jasotzen eta interpretatzen dute. Sentiberatasun sakona dute, bai plazererako eta baita displazererako ere”. Adibide bat jarri du EHUko irakasleak: “Musika eder bat entzuten dutenean negarrez has daitezke, eta aldi berean, norbaitek desafinatzea edo zarata handiak entzutea —jangelako edo jolas-orduko oihiak, adibidez— jasan ezina egiten zaie. Mundua era global batean hautematen dute, baina baita xehetasunekin eta sakontasunarekin ere”.

Garapenaren ezaugarriak:

- Goiztiartasuna: adinkideekin alderatuta, gaitasun bat edo batzuk lehenago garatzen dituzte. Garapen motorean esaterako, umeen jaiotze unetik hasita, heldutasunaren seinale diren ezaugarri asko erakuts ditzakete, hala nola, jaiotze eta oso laster begiak zabal-zabalik izatea eta burua erne edukitzea; sei hilabeterekin zutik egotea; bederatzirekin bakarrik ibiltzea...
- Hizkuntzaren garapenean ere goiztiartasuna eta kalitatea nabarmentzen da beste adinkideekin alderatuta. Adibidez, sei hilabeterekin lehen hitzak esan ditzakete, 2 urterekin elkarrizketak mantentzeko gai izan, hasieratik hizkuntza zuzena eta zehatza erabiltzeko joera izaten dute...
- Disinkronia: goiztiartasuna arlo batzuetan izan dezakete baina ez derrigor arlo guztietan, trebetasun intelektualak aurreraturik egon arren, gorputz aldetiko trebetasunek, edo emozionalek edo sozialek ez dute maila bera halabeharrez, eta horrek, barne desorekak sor ditzake; *disinkronia* deitzen zaio horri. 5 urteko haur batek adimen aldetik uler dezake

"Bere desberdintasuna ukatu zaionean, bere pareko lagunak ez duenean eta bera den bezala onartzen ez denean, arazoak izan ditzake haurrak eskolan eta lagunekin"

Izaskun Etxebarria, EHUko irakaslea eta AGHn aditua

GAIA: ZAINDU BEHARREKO HARRIBITXIAK



Donostiako San Luis La Salle ikastetxeko Zabaltze proiektuko hainbat ikasle Iban Narbaiza irakslareekin. FOKU

persona bat hil egin dela, bihotzak ez duelako funtzionatzen adibidez, baina hori barnertzeko zailtasunak izan ditzake, bere adin kronologikoari dagokion eran.

Ezaugarri kognitiboak:

Burmuina “topera” dute, “Ferrari bat balitz bezala”, deskribatu du Etxebarriak. Hainbat autoreren ekarpenak sintetizatuz honela laburbiltzen ditu liburuan adimen handiko ikasleen ezaugarri kognitibo nagusiak:

- “Jakin-min handia, esploratzeko joera eta haien intereseko gai ugari izaten dituzte. Informazio asko jaso, gorde eta prozesatzeko erraztasun handia dute. Ikasteko motibazio handia txiki-txikitatik erakusten dute objektuak behatu eta esploratzen dituztenean, etengabe galderak egiten dituztenean edo denbora luzez zerbait ikertzen dutenean. Haien intereseko zerbait aurkitzen dutenean gaiaren inguruko guztia “hustu” egiten dute gero beste gai batera pasatzeko, baina euren intereseko gaiak ez dira beti bat etortzen euren adinkideek izaten dituztenekin, esaterako egipziar zibilizazioa, unibertsoa, zulo beltzak edo dinosauroak”. Eskolari begira, adituak zehazten du ikasle horiek, kasu askotan, ez dituztela behar izaten eskolak zehaztu ohi dituen ikasketa-prozesuko etapa guztiak, eta

jauzi intuitiboari jarraitzea gomendagarria deritzo, hezkuntza sistemak besteei itxarotera behartu ordez.

Sormenari loturiko ezaugarriak:

-Sormena edozein jardueratan erakuts dezakete Adimen Gaitasun Handiko pertsonak. Etxebarriak eta Olasagarrek zehazten dute, ordea, sormen handia edukitzeak ez duela zertan arte bisual plastikoetan trebea izatearekin loturarik eduki. Sormena erakusten dute eginkizunak era desberdinean egiteko joeran, “bide berriak esploratzeko nahian zein errutinaren aurkako joeran, bai eguneroko bizitzaren eginkizunetan, lanean eta maila akademikoaren ere”, Etxebarriaren hitzetan.

Ezaugarri emozionalak eta sozialak:

- Alde kognitiboarekin batera, alde emozionala “oso aktibua” edukitzen dute. Horrek ez du esan nahi haien emozioak eta besteak desberdinak direnik, baizik eta beraiek beren alde emozionala sakontasun handiarekin bizi dutela. Horrek alde onak dituen bezala, laguntza behar duela nabarmentzen du irakasleak. “Haurraren garapena oso goiztiarra denean, bere inguruetik garapenerako oztupoak jasotzen dituztenean, bere desberdintasuna ukatu egiten zaionean, bere pareko la-

"Haurraren ongizate emozional eta sozialari begira, garrantzitsua da esku-hartzeak garaiz egitea, geroago eraginkortasuna ez baita hain handia izango"

Yolanda Olasagarre, EIBZtako formatzailea eta AGHn aditua

GAIA: ZAINDU BEHARREKO HARRIBITXIAK

Adimen Gaitasun Handiko ikasleak

gunik izateko aukerarik ez duenean eta bera den bezala onartzen ez denean, orduan arazoak izan ditzake eskolan, lagunekin eta familian”. Arlo emozionala behar bezala garatzeko, ingurune suspertzailea, malgua, sormenekoa eta onarpenekoa izatea funtsezkoa da bi adituen aburuz.

- Ezaugarri emozionalei dagokionez, umore-sen ona eta fina izaten dute; sentiberatasun handia eta intentsitate emozionala; enpatiarako gaitasuna; bikaintasuna lortzeko joera edo perfekzionismoa; barne motibazio handia; estimulu berriak bilatzeko joera; justizia sena txikitatik; maila etiko eta moral garatuak; egiaren eta edertasunaren beharrezakoa; zehatza eta zorrotza izatearen premia; kritikoak dira euren buruekin, besteekin eta gizarteko araeuekin...

Esku-hartze eta praktikak egokiak

Badira AGH ikasleei eskaini beharreko arreta eta egin beharreko esku-hartzeak sistematizatuak eta protokolizatuak dituzten ikastetxe batzuk Euskal Herrian, baina aditu, formazioaile eta familiek ikusi dutenez, gutxi dira. Denak bat datoz esku-hartzeak tokian toki, haur edo nerabe bakoitzaren, familiaren eta testuinguruaren arabera izan behar direla, baina baita norabidea eta ekintza-plana egiturazkoa izan behar dela esatean ere. Bitartean, planak egikaritu eta ikastetxetan protokoloak eta baliabideak ezarri arte, irakasleek arreta zertan jarri zerrendatu dute adituek. Lehen lana detekzioa da. AGH haurrak hauteman ezean, nekeza izango da alor akademikoan zein emozional eta sozialetan arrakasta erdiestea. Horregatik, Olasagarrek eskaini izan dituen formazioetan adar bat hautemateari eskaini dio. “Detekzioan lagundu ahal izateko, haur horien behaketarako gakoak behar izaten dituzte irakasleek, lehen galbahe lana egin dezaten hurrengo urratsa egin behar duenari (orientatzaileari, tutoreari...) laguntzeko”. Begirada irekitzen lagundu izan die irakasleei EIBZko formatzaileak, “aurrean zer-nolako ikasleak dituzten konturatzeko balio dien begirada irekiera bat da”. Olasagarrek zehazten du, behin AGH haur eta nerabeen ezaugarriak ezagututa eta begirada irekita, ikuspegia aldatu egiten dela, sarritan, eta aldaketa txikiak planteatzen has daitezkeela, aniztasuna eta sormena, esaterako, beste era batera kudeatzen hasteko. “Aniztasunaren eta inklusioaren benetako zentzua ulertzeaz eta praktikan jartzeaz ari gara haur hauek dituzten beharrak aintzat hartzeaz ari garenean”.

Hauteman ahal izateko, behaketa-lanean, Etxebarriak zehazten du garrantzitsua dela estereotipoak haustea eta neska asko ere AGH direla gogoratzea: “Identifikatuen artean hamarretik zazpi mutilak dira; gizarteko beste esparruetan bezala, neskek, onartuak izan daitezten, euren izateko erari eta gaitasunari uko egiten dietelako”.

Olasagarrek gaiari buruz eskaini izan dituen formazioen bigarren lerroa AGH ikasleak aurrez hautemanak eta ebaluatuak dituzten irakasleei bideratua dago, *zerrendan* dauden ikasleen hezitzaileei bideratua. Ebaluazioa, gaur egun, ikastetxetako orientatzaileek (Nafarroan) ikastetxetatik kanpo egin ohi dute, kanpoko aholkularitzek, psikologoek edo Berritzeguneetako aholkulariek. Test psikometrikoez gain, behaketa eta ebaluaketa kualitatiboagoak egitea hobesten da eta ikaslearen, irakasleen eta familiaren ahotsa jasotzea gomendatzen da.

Dagoeneko ebaluazio psikopedagogiko bat jaso duten ikasleak gelan dituzten hezitzaileei begirako formazioan ikasleen ongizatea, osoki hartuta hobetzea litzateke helburu nagusia, eta horretarako esku-hartzeak diseinatuko dira. Hautematea alferrekoa baita esku-hartzerik egin ezean. “Garrantzitsua da esku-hartzeak garaiz egitea, bereziki haurren ongizate emozional eta sozialari begira, eta arazoak ekidite aldera, adin handiagoetan edo goiko etapetan egingo diren esku-hartzeen eraginkortasuna batzuetan ez baita hain handia izango, zailagoa delako”. Haatik, nabarmentzen du ongi egindako esku-hartze txikienek ere hobekuntzak ekartzen dituztela haur eta nerabe horien ongizatean.

Irakasleak haur bakoitzarekin egin ditzakeen esku-hartzeetan hainbat plano izaten dituzte kontuan eta alderdi akademikoaz gain, alor emozionala, soziala, sormena eta alderdi etiko kontuan izatea gomendatzen du Olasagarrek, eta ikaslearen eta testuinguruaren arabera izango dira esku hartze-horiek, familiarekin partekatutako: “Beste edozein esku-hartzetan bezala, familiara aurrez eta ondoren hitz egin behar zaio gelan egiten ari garenaz”. Familiak zaintzea ezinbestekoa da Etxebarriarentzat ere: “Sendiak asko lasaitzen dira irakasleek ardura hartzen dutela ikustean, eta tentsioa jaitsi egiten da”.

Alor akademikoari dagokionez, legeak ahalbidetzen dituen esku-hartze ohikoenak maila curricularra ikaslearen beharren arabera egokitzeari begirakoak izan ohi dira, curriculumetik kanpoko edukiak sartzeko edo gaian ikasleak behar beste sakontzea, esate baterako, edo bizkortze-prozesuak egiten dira, kurtsoz edo gaika hurrengo mailara (edo mailletara) egokituz ikaslea. Antolakuntza aldetik, ikasgai bera, Teknologia esate baterako, bi mailatan egun eta ordu berdinetan jarritz konponatzen dute hainbat ikastetxetan egokitzen hau.

Taldekatzeko bereziak ere gomendagarriak izan daitezke gela barruan, beti ausazko talde heterogeneoak egin ordez, interesen edo ezagutzaren arabera talde homogeneoak uko ez egitea gomendatzen du Olasagarrek: “Interes komunak izan ditzaketen kideekin taldekatzeko edo gai zehatzetan maila kognitibo antzekoa dutenekin taldekatzeko aberasgarria eta

GAIA: ZAINDU BEHARREKO HARRIBITXIAK



motibagarria izan daiteke ikasle horientzat, Matematiketan adibidez”. Etxebarriak eranstean dio, adinko ez ezik, ikastetxe mailan proiektu baten gaineko talde malguak egitea aberasgarria dela ikasle guztientzat eta baita AGHentzat ere. “Garrantzitsua da interes, zaletasun eta gaitasun antzekoak dituzten ikasleekin harremanetan jartzea”. Haatik, taldean ez ezik, bakarrik lan egiteko aukera ematea onuragarria deritzote.

Motibazioa nabarmendu dute. AGH ikasleei arreta emateko gakoetako bat dela dio Etxebarriak. “Haurra pozik joaten baldin bada eskolara, lanaren % 90a egina dago”. Ikasle horien arazo nagusia motibazioa galtzea izaten da, ezin dute asperkeria jasan. “Motibazioa da garapenaren motorra. Eta zelan motibatu? Batetik, haurra txikia bada eta askatasuna izan badu bere gustuak adierazteko, berak esango du nondik jo nahi duen. Edo, bestela, galdetu. Jakin-mina bultzatu”.

Bi adituak bat datoz, motibazioarekin batera, malgutasuna dela beste hitz gakoetako bat. Denboran eta lanen sakontasunean malgutasunez jokatzeko gomendatzen diete irakasleei: “Adimen handiko haurrek gauza batzuk egiteko denbora gutxiago behar izaten dute, baina beste gauza batzuk egiteko denbora handiagoa behar dute, asko sakondu nahi dutelako gai horretan”. Denbora gutxiago behar duten lanetan etengabe gauza bera ez errepikarazteko aholkatzen dute, “bitarte horretan euren gustukoa den beste lan edo proiekturen bat egiteko aukera hitzartu liteke”, dio Etxebarriak. Malgutasunarekin batera, diziplinartekotasuna zaintzea gomendatzen du EHUko irakasleak; “ikasle hauek ezagutza modu globalean hartzen dute, eta ikasten ari direna zertarako den, gauzen alde etikoa

eta baliagarritasuna ikusi behar dituzte.”

Umorea da beste gako bat, “zaindu dezagun gelako giro ona, jarri umore pixka bat egunero, eta horrek adimen handiko ikasleentzat ez ezik beste guztientzat ere balio du”. AGHren gaia sarri dramatismoz jorratzen dela ikusten du Etxebarriak eta horren ordean umoretik hartzea aholkatzen du: “Haur hauek harribitxien pareko dira, ongi zaindu behar direnak, baina oso baliotsuak”.

Irakaslearen rolari dagokionez, zubi-lana egin behar duela nabarmentzen du Olasagarrek, ikasle horien (eta besteen) alde soziala zaintze aldera. Izan ere ikasle hauek justiziaren eta etikaren zentzu zorrotza daukate. “Desberdinak diren bi alde badaude, irakasleak zubi-lana egin behar du, batak bestea onartzen lagundu beharko luke, errespetuan oinarriturik. Hori litzateke inklusioaren benetako oinarrietako bat”.

Eta esku-hartu ezean, arazoak handiak dira. AGH haur eta nerabeei askotan jazarpena etorri izan zaie, “desberdina den hori onartzeko ezintasunagatik”, dio Olasagarrek; “ikasle horiek jazarpenaren objektu izateko arrisku potentziala dutela erakusten dute datuek”. Arraroa etiketapen izendatzen dira adimen handiko haur eta nerabe asko, gizarte mailan gaierikiko dagoen ezezagutzagatik. Alor akademikoan, ostera, esku-hartze egokiaren gabeziak eskola-porroterako arriskuan jartzen ditu, Alcagi Gipuzkoako AGH haurren familien datuen arabera, eskola-porrota % 35-40koa da. “Neurriak azkarrak izan behar dira, ume horiek orain behar dituzte erantzunak”, laburbildu du Olasagarrek.

“Formatu ahala, kasu berriak ikusten genituen”

Beharrak eraman zuen Donostiako San Luis La Salle ikastetxea Adimen Gaitasun Handiko ikasleei benetan behar zuten arreta eskaintzeko plan eta protokoloak diseinatzera. Bidean akatsak eginez egin dute aurrera, Euskal Herrian, eta hemendik kanpo, erreferente bihurtuz.

DBH 2ko ikasle batek hala galdetu zion Gizarteko irakasleari: “Erdi Aroan ez al zegoen andrerik? Liburutik erregeak, soldaduak eta artisauak soilik agertzen dira, guztiak gizonezkoak; eta emakumeak?”. Irakasleak erronka botatu zion: “Ikertu ezazu zerorrek, eta aurkitutako informazioarekin egin ezazu ipuin historiko bat”.

Adimen Gaitasun Handikoa da ikasle hori. Irakasleak ikaslearen kezka baliatu zuen gai sakon zezan eta motibatutik mantentzeko. Donostiako San Luis La Salle ikastetxean berriazko arreta eskaintzen baitiete adimen handiko ikasleei. Euskal Herrian erreferente dira, sistematizaturik daukate nola egin AGH kasuen detekzioa eta esku-hartzeak. “Irakaslearen formazioa ezinbestekoa da, begiak irekitzea da garrantzitsua”, azaldu du Iban Narbaiza DBHko irakasle eta San Luis La Salleko AGH programaren arreta-arduradunak.

Beharrak eraman zituen AGH serio hartzerak, duela 16-17 urte: “Oso gaitasun handiko neska bat etorri zen eskolara, ikaragarria zen, HHn zegoela ekuazioak egiteko gai zen, eta esku-hartze bat planteatu zen, Eusko Jaurlaritza ere inplikatu zen. Mentoriatzuk jarri zitzaizkion baina hori 4 ordu ziren astean, gainontzeko guztietan eskolan zegoen eskolako irakasleekin, eta orduan hezitzaileak formatzen hasi ginen. Adituak entzun eta berehala ikusi genuen kasu gehiago eduki genitzakeela gure ikastetxean, eta formatu ahala, kasu berriak ikusten genituen, garrantzitsua begiak irekitzea baita”. Garai berean, ikastetxean hautemandako haur horien gurasoek Alcasti sortu zuten, Gipuzkoako Adimen Gaitasun Handiko haurren familien elkarteak, gurasoei bidelaguntza eskaintzeko, interesatuak formatzeko eta gizartea sentsibilizatzeko. San Luis La Sallek eta Alcastik eskutik egin duten bidearen iparra prestakuntzak markatu du. “Eskola-mailan, lehendabizi, formatu beharra ikusi genuen, zer den AGH pertsona bat, zer ezaugarri dituen eta, funtsean, daukan ezaugarriak kontuan izanda, bere bidea egiten nola lagundu diezaiokegun jakin nahi genuen”. Gaur egun, zentroko irakasle guztiak ez ezik, jangelako hezitzaileak eta hurrekin harremana duten pertsona orok sentsibilizazioa eta formazioa jaso ditu AGHren inguruan, baina baita Arreta Gabeziak, dislexiak, autismoz... Eta bidean aurrera egin dute.

“Zein izan da arazoa? Beste inon ez zela antzeko ezer egiten eta ez geneukala eredurik, beraz, akatsak eginez ikasi dugu aurrera egiten. Erori eta altxatze asko egon dira bidean, probatutako gauza askok ez baitute esperotako emaitza eman”.

Hiru planotan erantzuten diete AGH ikasleek ezaugarriak eta beharrei. “Plano akademikoan hasi ginen lanean, eta hori izan zen lehenengo akatsetako bat: honelako pertsona bat aurrean daukagunean, hiru arlo landu behar dira: emozionala, soziala eta akademikoa, ordena horretan. Guraso asko, bere ezjakintasunetik eta asmo onez etortzen dira galdezka ea noiz pasako ditugun euren seme-alabak mailaz, baina hori, egitekotan ere, azken urratsa da, pertsona batek ez badu bere burua ondo ezagutzen, ez badu ulertzen zer daukan eta nolako den, eta ez badiogu erakusten ezaugarri horiekin mundura ateratzen, alor akademikoan soilik lagunduta, gauzak ez dira asko hobetuko”.

Ikastetxeko haur guztiekin lantzen dute alor emozionala programa baten bidez, bereziki Haur eta Lehen Hezkuntzan, ez soilik AGH ikasleekin. Baina azken horiekin bereziki landu beharrekoa da: “Euren adinerako oso sakonak diren galderak egiten dituztelako, edo alor desberdinak modu harrigarrian konektatzen dituztelako, gerta daiteke gisa honetako ikasle batek bere burua gelatik kanpo sentitzea, ‘ni ez naiz hauek bezalakoa’, eta euren burua arraro bezala ikusten dute. Horrexegatik, lehendabizi lagundu egin behar diegu euren burua ezagutzen, euren ezaugarriak ulertzen eta emozioei izena jartzen”.

Horrekin batera, arlo soziala lantzen dute: “Nola erlazionatzen naiz ni naizen honetatik, nire ikaskideekin, nire lagunekin, besteekin?”. Eta hirugarren hanka alor akademikoa da. “Pertsona batek bere burua ezagutu eta onartzen duenean, eta ikasten duenean nola erlazionatu, egokitzapen akademiko bat egiten dugu. Egokitzapen hori irakasgai batean izan daiteke edo maila osoan, kasuaren arabera”. Kasuak banaka aztertzen dituzte, eta zorrotzak dira, esate baterako, mailaz pasatzeko orduan. “Ume bat jolas-orduan beti handiagoekin ibiltzen denean eta bere burua gelan aurkitzen ez duenean, eta, gainera, akademikoki gaitasun-maila handiagorekin

GAIA: ZAINDU BEHARREKO HARRIBITXIAK

bat datorrenean, orduan proposa genezake maila aurreratzea; baina azken aukera izan ohi da”. Azken urteetan bost kurtso azkartze egin dituzte, “baina egin aurretik jauzi txikiak egiten dira, ikaslea egokitzen den ala ez ikusteko”.

Lehen urteetan esku-hartze akademikoak bertikalean egiten zituzten: “Ikasle horrek, demagun, DBH2ko helburuak gaindituak bazituen, DBH3koak ematen genizkion, adibidez, Matematiketan. Denborarekin ikusi dugu hori ez dela planteamendu egokia, zabalketa hori horizontala izatea aberasgarriagoa dela ikusi dugu: gelan eguzki sistema lantzen ari direnean, esate baterako, ikasle horrek curriculumak eskatzen duena dagoeneko baldin badaki, aberasgarria da gai horretan sakontzea”. Eta, horretarako, erronketara jotzen dute, AGH ikasleei asko gustatzen baitzaizkie. “Zer gertatuko litzateke ilargirik ez balego? Edo grabitatea bikoitza edo erdia balitz, nola eragingo lioke gure bizimoduari? Besteen gai berdina lantzen ari dira, baina gehiago ari dira sakontzen, eta gainera bukaeran lan hori besteen aurrean aurkeztea eskatzen diegu”. Hasiera batean, gelatik ateratzen zituzten AGH ikasleak eta beste lan bat ematen zieten, “era horretan ikusi genuen guk geuk elikatzen genuela diferentzia eta ikasleen arteko aldentzea; sakontzearen bidez, hori guztia saihestu egin dugu”.

Hauteman eta erantzun

Hezitzaileen begirada da, Narbaizaren aburuz, AGH haurrei “eta beste guztiei” arreta egokia eskaintzeko gako garrantzitsua. Irakaslearen behaketaz gain, sistematizatua daukate AGH kasuen detekzioa nola egin: LH2ko ikasle guztiei *screening* proba bat egiten diete sistematikoki. “Norbaitek kanpai horretan altu edo baxuegi erantzuten badu, beste proba batzuk jartzen ditugu martxan. Ez digu balio soilik AGHak identifikatzeko, baita bestelako beharrak dituztenak ere”. Emaiza horien arabera, banakako planak egiten dituzte. Ondoren, DBH1en berriro errepikatzen dute *screening* orokorra, batzuetan LHn emandako emaitzak goiztiartasunari erantzuten baitio eta ez AGHri. “*Screening* hori ikastetxe barruan egiten dugu, baina emaitzen arabera Berritzegunera edo Alcagiko gabinetera bideratzen dira kasuak eta hor arlokako irakurketak egiten dira. Izan daiteke ikasle batek arlo batean gaitasun handia edukitzea, adibidez Matematiketan, baina beste arlo batzuetan gaitasun arrunta edo txikia izatea, adibidez, letretan. Superdotazio bat duen ikaslea izan daiteke, edo talentu globala zein arlokakoa duena”.

Esku-hartzeak pertsonalizatuak izan daitezen saiatsen dira. AGH identifikatzen denean, klaustroan eseri eta ikaslearen beharretara nola egokitu aztertzen dute, “arloka zer egingo dugun, zer-nolako erronkak egingo ditugun, ebaluatzeko

metodoa aldatu behar ote dugun... aztertzen dugu”. Horrek irakasleen artean komunikazio handia izatea eskatzen du, “beste irakasgai batean proiektu batean sakontzen ari bada, bere ikasgai horretarako denbora utz deizaioke AGH ikasleari hezitzaile batek. Denboran malgutasun handiagorekin jokatzeko dugu”.

AGH ikasleentzako zabaltze-proiektuak sortu dituzte berriaz —hasieran zabaltze-gelak ziren—, talde homogeneotan elkartzen dituzte AGH ikasleak astean bi orduz, lanketa emozionala, soziala edo akademikoa egiteko. “Euren ingurune naturala euren gela dela ulertzen dugu, baina tarteka gaitasun handiko beste haur batzuekin egotea aberasgarria dela ikusi dugu, bai solaserako eta baita proiektu batzuk egiteko ere. Emozioen inguruan hitz egiteko, adibidez, euren antzeko egoera bizitzen ari den norbait topatzeak euren bizi-penari izena jartzen laguntzen die edo maila akademikoan, proiektu batean euren antzeko ezaugarrietako pertsonekin lan egitea aberasgarria da”.

Egindakoaren emaitzak jasotzen ari dira San Luis La Sallen. AGH kasuetan hain ohiko izaten diren eskolaporrot zein jazarpen-kasuak urriak dira bertan. “Onarpena baldin badago, lehendabizi nork bere buruarena, eta ondoren integrazioa zaintzen bada gelarekiko, arlo guztietan, jazarpena eta bazterkeria jaitsi egiten dira”, azaldu du Narbaizak. Beste ikastetxe batzuetan sufritu izan duten ikasleak etorri izan zaizkie San Luis La Sallerari eta “makiltxo magikorik” ez daukaten arren, “AGH izateagatik tokiz kanpo sentitu izan diren ikasleak, onartuak sentitzen direnean, asko jaisten zaie antsietatea eta tentsioa. Nabarmena da”.



Iban Narbaiza ikasleekin. Zabaltze proiektuan AGH ikasleak biltzen dira. FOKU

“Sormen ikaragarria daukaten neska-mutilak ez ulertuak sentitzen dira gelan”

Adimen handiko haur eta nerabeen familiak elkarte ugarian batzen dira Euskal Herri osoan zehar. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 300 familia batzen ditu Aupatuzek, “hezkuntza sistemen malgutzea” lehenesten du.

Eusko Jaurlaritzak idatzia dauka 2019-2022rako Adimen Gaitasun Handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko Plana. Baina paperean jasotzen denetik urrun dago ikasle horien eguneroko errealitatea, Aupatuz Elkartearen aburuz. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 300 familia biltzen ditu elkarte honek, guztiak adimen handiko haur eta nerabeen familiak, eta plan horren diseinu eta idazketan parte hartu du. Elkarteko lehendakari Maria del Carmen Perezen aburuz, plan hori, “zalantzarik gabe”, aurrerapen handia da AGH ikasleentzat, “lehenik eta behin ikasle guztiei galbahe proba egiteko betebeharra jasotzen duelako, gutxienez etapa bakoitzean bi aldiz, eta berau ongi egiten baldin bada, beste modu batera identifikatuko ez lirakekeen kasuak ezagutzeko oso baliagarria izango delako. Baina antzemate-garaian zentroetako langileen protagonismoa areagotuz egiten du, Berritzeguneetako aholkularitzen lana gutxiagotuz, eta orain arte eurak izan dira ebaluazioak egin izan dituztenak”. Gaur

egun, ordea, ikastetxeetako langileriaren formazioa gai horri dagokionez, “oro har, oso eskasa” dela irizten diote, eta plana aurrera eramanez eta antzemate-gaietan betebeharrak garrantzitsuak izango duten hezitzaileen formazioak “leku garrantzitsuak” izan beharko luketela uste du elkarteak, “eta Hezkuntza Sailak ongi antolatua izan beharko luke egiteko hori; baina, gaur egun, ez da halakorik gertatzen”.

Familien ikuspegitik, AGH ikasleen behar handiena “hezkuntza sistema malgutzea” litzateke, “eta ikasketa-prozesuen pertsonalizazioa”. Aupatuzen ustez, aintzat hartu beharko litzateke, haur bakoitzak —ez soilik AGH haurrek—, bere erritmoan eta bere modura ikasten duela: “Gaitasun intelektual handiko haurren kasuan, askotan eskolan lantzen ari diren gaia ezagutzen dute euren jakin-minak eramanez dituelako aurrez ikastera, eta dagoeneko badakiten zerbait berriro landu behar izateak, batzuetan modu errepikakorrean, eskolarekiko



GAIA: ZAINDU BEHARREKO HARRIBITXIAK

motibazioa galtzera eraman ditzake”. Ikasketa malgutzeak ez du esan nahi, derrigor, haur horrek gai gehiago ikasi behar dituenik, Aupatuzen arabera: “Ezagutzen duen horren inguruan lan egin dezake baina ikasteko modu berezian eta bere interesetan arreta jarritz, motibazioari eusteko. Esate baterako, bururakoekin batuketak egiten badakien ikasle batek ez dauka batuketak modu mekanikoan egiten aritzeko beharrik, errepi-kapen horrek, gainera, batuketak gorrotatzera eraman dezake. Horren orde, buruketak prestatzen aritu daiteke, ondoren gela guztiak erabili ahal izateko modukoak”.

Hezitzaileen formazioa, gaiarekiko sentsibilizazioa, detekzioa eta artatzea funtsezkoak direla ikusi dute familiek, oraindik gaiarekiko uste okerrak baitira nagusi jendartean: “Mito eta aurreiritzi guztiak deuseztatzeko urratsik garrantzitsuena gaiaren inguruko sentsibilizazio-lana da. Hautemateak eta ebaluazio on batek familiari eta irakasleari haurra eta bere beharrak ezagutzen lagunduko diete, izan behar kognitiboak nola behar sozio-emozionalak; eta artatzea izango litzateke azken helburua, eta etengabe berrikusi beharko litzateke—Perezen aburuz—. Ez dauka inolako zentzurik hauteman eta ez esku hartzeak”.

Alor emozionala artatu beharko litzateke, beraz, lehendabizi, enpatia izugarriak, justiziarako senak eta sentiberatasun handiak ezaugarritzen baititu haur horiek, eta emozio horiek landu ezean, etxean zein eskolan “lehertu” egiten direla ikusten du Aupatuzek: “Adimen handiko haur askok arazoak izaten dituzte eskolako kideekin, eta horrek, eskuarki, euren sakontasun emozionalarekin eta justiziaz eta adiskidetasunaz daukaten zentzuarekin zerikusia dauka. AGH haur batek, esate baterako, beste haurrek baino indar handiagoz sentitzen eta oroitzen du irain bat; bazterkeria besteek baino sentiberatasun handiagorekin sentitzen du; injustiziak sakontasun handiagorekin bizi ditu eta denbora luzean gogoratzen ditu”. Garapen-eta batzuetan sakontasun horren kudeaketa oso konplexua dela aitortzen du Perezek, “entzun egin behar diegu eta emozioak kudeatzen lagundu”. Horretarako, funtsezkotzat jotzen du familien eta ikastetxeen arteko komunikazioa ona izatea. “Hamar urtetan, ehunka eta ehunka kasu ezagutu ondoren, esan dezakegu eskola eta familia eskutik hartuta joan diren kasuetan, haurrari eskaini zaion arreta egokia izan dela”. Familiek, oro har, euren seme-alabek, ikasketen inguruan berezkoa duten jakin-minari eustea nahi izaten dute, “oso

aberasgarria den zerbait baita”, eta ikastetxeak motibazio horretaz baliatzen jakin beharko lukeela uste dute familiek. Eskolako esperientzia aberasgarria izaten da aukerak ematen dizkieten irakasleekin topo egiten duten haurrentzat, aldiz, “xomorro arraro” sentiarazten dituztenekin topo egiten duten haurrentzat “oso gogorra” izan ohi da; “inor ez diskriminatze-ko aitzakiarekin edo inor ez seinalatzeagatik, xomorro arraro izatearen sentipena zabaltzen diete irakasle horiek, egokitu ezin duten sistema batera egokituazten dituztelako”.

Sentsibilizazioa eta formazioa jasota, AGH kasu errazena ikastetxeak modu autonomoan hauteman eta artatu beharko litzuke, Aupatuzen arabera, eta “kasu konplexuagoetan, edo bikaintasun bikoitzeko kasuetan, Berritzeguneen aholkularitzaren laguntza izaten jarraitu beharko lukete”. Perezen aburuz, garrantzitsua da nabarmentzea hezkuntza legeak adierazten duela administrazio publikoak izan behar direla ikastetxeei behar dituzten baliabideak eman behar dizkietenak, “izan hautematerako nola artatzeak eskatzen dituen esku-hartzeetarako”.

Plana osoki ezarri eta egiturazko aldaketak etorri bitartean, ikasle horiei gutxieneko arreta eskaintzeko, hezitzaile edota klaustro gisa, formatu eta informatzea eskatzen du Perezek. “Interneten informazio asko dago ikasle horiei buruzko mito faltsu asko hausten lagunduko duena”. Aupatuzen ahalegin handia ari dira egiten irakasleen formazio-beharrak asetzeko. Horretarako formatzaile talde bat daukate, hitzaldiak eta aurrez aurreko tailerrak eskaintzen dituen ikastetxeetan, eta doako hitzaldiak, online.

Irakasleen formazioa eta sentsibilizazioa handitzen den neurrian, AGH kasu berriak agertzen direla ikusi izan du elkarteak. Hori, haur eta familia bakoitzarentzat ez ezik, ikastetxearentzat eta gizartearentzat aberastasuna dela nabarmetzen du elkarteko lehendakariak: “Hezkuntza sistema guztien helburua pertsonaren garapen handiena erdiestea da, bere alor guztietan. Hezkuntza sistemak ikasle bakoitzaren talentuak ezagutzeko tresnak eduki beharko litzuke eta baliatu beharko litzuke, talentu hori garatu ahal izateko. Geletan talentu handia dago, sormen ikaragarria daukaten neska-mutilak ez ulertuak sentitzen dira eta euren gaitasunei uko egiten amaitzen dute homogeneotasunerako diseinatua dagoen sistema batera egokitu ahal izateko”.

“Hamar urtetan, ehunka kasu ezagutu ondoren, esan dezakegu eskola eta familia eskutik hartuta joan diren kasuetan, haurrari eskaini zaion arreta egokia izan dela”

Maria del Carmen Perez, Aupatuz elkarteko lehendakaria



“Eskolarekiko
espektatibak gero eta
txikiagoak dira”

ELKARRIZKETA: ANDONI EIZAGIRRE EIZAGIRRE

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ETA
FILOSOFIAN DOKTOREA

Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta Filosofian doktorea da Andoni Eizagirre Eizagirre. Hezkuntzaren soziologia du ikerketa lerro nagusietako bat, goi mailako hezkuntzaren soziologia bereziki, eta hezkuntzak dituen beharrizanen gaineko hainbat ikerketa egin ditu. Hezkuntzak askotariko beharrizanak dituela dio, eta guztien diagnostikoa egin beharko litzatekeela euskal hezkuntza horien arabera antolatzeko. Gurasoek dituzten eskolarekiko espektatibak gero eta

txikiagoak direla dio, eskola ziurtagiri akademikoa lortzeko tresna gisa hartzen dela gaur egun eta ez zaiola funtzio hezitzailek aitortzen. Egungo sistema agortua dagoela uste du Eizagirrek eta Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan onartu nahi duen Hezkuntza Legera bidean akordioa lortzeko baldintza egokiak badirela pentsatzen du. Bide horretan, hori bai, askotariko beharrizanak aintzat hartzeko beharra eta ausardiaz jokatzeko beharra azpimarratu ditu.



Hezkuntzak dituen beharrizanen gaineko azterketa egin duzu. Zein dira, zure ustez, euskal hezkuntzak dituen beharrizan nagusiak?

Abiapuntu garrantzitsua du gaiak: askotariko beharrizanak egon litezke eta, gainera, horiek ulertzeko hainbat modu daude. Eskolaren funtzio garrantzitsuenetako bat da pertsona ‘nor naiz?’, ‘zer nahi dut?’ eta ‘nor gara?’ galderen gainean heztea. Bestek beste, funtzio historikoa, identitarioa eta sinbolikoa du eskolak, baina azken hamarkadetan, funtzio hori bigarren mailan geratzen ari da eta eztabaidetan ez dugu lehenesten. Eta oso garrantzitsua da eskolaren funtzioetako bat delako, baina baita herri gisa pertsonak sustraietara jotzen duten galderen bidez heztea beharrezkoa dugulako ere.

Eskolak, izatez, pisu handia du nobere identitatearen eraikuntzan, ezta?

Bai. Eta besterik ez bada, funtzio hori bete behar du. Gaur egun gero eta gehiago esaten da familiak eta eskolak pisua galdu dutela zeregin horri dagokionez, eta haurren sozializazioan eskolaz kanpoko beste faktore eta eragile batzuk ari direla pisua hartzen: ikus-entzunezkoak, bestelako erreferentzia sinbolikoak... Baina eskolak funtzio hori bermatu

behar du.

Beharrizan historikoek berebiziko garrantzia dute, beraz. Zein dira gainerako beharrizanak?

Eskolari buruz eta hezkuntzari buruz gero eta gehiago ikertzen da, gero eta ezagutza handiagoa dugu, eta ezagutza horrek ere beharrizanak azaltzen dizkigu. Ebidentzia horiei kasu gehixeago egin behar diegu. Eta ezin ditugu ahaztu hezkuntza arloko erakundeen beharrizanak ere. Askotan, badirudi beharrizanak soilik hartzaileek dituztenak direla eta hori arlo pedagogikora eta didaktikora mugatzen dugu, baina hezkuntza arloko eragileek ere euren beharrak dituzte, eta beharrizan eta interes horiek batzuetan eraldaketarako galga izan daitezke, gainera. Horiekin batera badira itzalean geratu diren beharrizanak ere eta honako adibideak aipatuko nituzke: unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arteko dualtasuna, eta, horrekin lotuta, unibertsitatearen tasa ikaragarri altua dugula.

Europako altuena da.

Bai. Lehenak gara, alde ikaragarriarekin gainera, unibertsitate ikasketak amaitu osteko adin tartean. Eta gure berezitasun erantsia da oso epe laburrean pasa garela unibertsitario

tasa baxua izatetik Europako altuena izatera. Eta galdera da: zerk bultzatzen gaitu herri gisa, familia gisa ia automatizatua izatera gure seme-alabek unibertsitateera joan behar dutela? Zerk bultzatzen gaitu hezkuntzan ibilbide arrakastatsua izatea unibertsitateera joatea dela pentsatzera?

Arrakastarekin lotu da unibertsitatea, ezta?

Bai. Hori gutxi ez, eta arazo objektibo bat dugu. Itxuraz balio ez duena edo motibaziorik ez duena ibilbidetik kanpo geratzen da eta gaur gaurkoz, oraindik, ibilbidetik kanpo geratzea Lanbide Heziketarekin lotzen da. Gurean Lanbide Heziketa arrakastatsua da, pedagogikoki, metodologikoki, bailaretako enpresak eta errealtatea aintzat hartzen ditu eta lan merkatu-rako sarbidea errazten du, baina, hala ere, ikasle gehienek unibertsitatearako bidea hartzen dute, eta eskaintza eta ibilbide zehatzetara jotzen dute, bereziki. European hori ez da oso ohikoa. Gurearekin antzekotasuna izan dezaketen Austriako edota Alemaniako eskualdeak aztertuz gero, ikasle gehienek Lanbide Heziketara jotzen dutela ikusten dugu eta hori ez dute arrakasta faltarekin lotzen. Unibertsitateera joateak gero eta berme gutxiago ematen ditu, gainera. Egiten ditugun ikerketak agerian uzten ari

dira Batxilergoko irakasleek, tutoreek, barneratua dutela euren ardura dela ahalik eta ikasle gehien unibertsitatera bidaltzea. Etxean seme-alabei garrantzi hori transmititzen zaie, ikastetxeak norabide berean doaz eta unibertsitatera joatea gazteen helburua bihurtzen da.

Hezkuntza sistema arrakastatsua dugula esan ohi da.

Bai. Azken berrogei urtetan Hezkuntza sailburuek hezkuntza sistema legealdiz legealdi nola ebaluatu izan duten aztertu dut eta beti esan izan dute gure hezkuntza sistema arrakastatsua dela. Eta hori egia da eurek baliatzen dituzten adierazleetan oinarrituz gero. Eskola-uzte goiztiarreko tasa oso baxua dugu, errepikapen tasa baxua dugu eta denbora gutxian lortu dugu ikasle gehienek hezkuntza formaleko mailetan gora egitea. Nik hori ez dut zalantzan jarriko, balioan ipintzeko emaitzak dira zalantzarik gabe, baina beste adierazle batzuk erabiliz gero, datuak agian ez dira hain onak izango. Eta bada beste alderdi bat ere: nazioartean bateko eta besteko ikasleek azterketa berak egiten dituztenean, hemen emaitzak kaskarragoak izaten dira. Batzuek azterketa horiek zalantzan jarriko dituzte baina onak edo txarrak izan, denentzat berdinak dira. Eta hemen bazterrean geratzen direnak oso gutxi izanagatik ere, eskola goizago uzten duten beste hainbat lekutan emaitza hobek lortzen dituzte. Hori ere adierazle bat da.

Ikasketa mailan gora egitearen arrazoi nagusia ingurune sozio-laborala dela ikusi dugu. Askotan pentsatzen dugu ikasketak ez uzteko arrazoi nagusiak pertsonaren motibazioa, irakaslearen prestakuntza edota hezkuntza sistema bera direla eta ziur baietz, hala dela, baina era berean zera ikusten dugu: lan merkatuan gaztetxoentzat aukerak dauden lekuetan, ikasketa maila baxuagoa izaten dela. 14-20 urteko nerabeentzat lan merkatuan pizgarririk ez bada, eskolan jarraituko dute. Kataluniatik Andaluziarako kostalde guztia aztertu genuen hiru epe bereiztuta: 2008 arte, 2008-2013 tarte eta 2013tik aurrera. Denbora tarte horretan hezkuntza sis-

tema eta eredu pedagogikoa ez ziren aldatu baina 2008 arte, lan merkatuak pizgarriak zituen gure artean bezain aspertuak zeuden gaztetxoentzat. 2008an, krisiaren ondorioz, eskola uzte goiztiarra asko jaitsi zen eta 2013an berriro gora egin zuen.

Beraz, ikasketa mailan gora egiteak lotura al du kalitatearekin? Ez beti. Ez dezagun pentsa gure hezkuntza kalitatezkoa dela soilik adierazle batzuei erreparatuta. Gainera, eskola uzten dutenen edo zailtasunak dituztenen artean denetik dago, baina jatorri etnikoa eta klasea azalpen garrantzitsuak dira. Ezaugarri familiarren arabera ikasleak bi talde nagusitan banatzen dira: erraztasunak dituztenak eta zailtasunak dituztenak. Beraz, gure hezkuntza sistema kalitatezkoa denik ez dugu zalantzan jarriko, baina erronka handiak ere baditugu esku artean.

Egungo hezkuntza sistemak ez dituzten beharrak kontuan hartzen, beraz?

Ez. Eskola-uzte goiztiarrari dagokionez, Europako tasarik baxuena dugu baina talde hori oso homogeneoa da, denek antzeko perfila dute eta hori zergatik gertatzen den galdetu behar dugu. Horrekin lotuta, herri berezia gara: alde batetik, aberastasun handia dugu eta aberastasun handia sortzen dugu, baina desberdintasun sozial handiak daude gurean, eta enkistatzen ari dira. Zailtasunak zituenak, gero eta zailtasun handiagoak ditu, eta eskolentzat oso nekeza da aukera berdintasuna efektibo bihurtzea. Eta batzuek zein besteek eskola ulertzeko dituzten aukerak eta dituzten espektatibak desberdinak dira. Bestalde, ongi dauden artean, gero eta gehiago dira eskolarengandik gero eta gutxiago espero duten familiak.

Azalduko al diguzu hori?

Jendeak seme-alaben gaineko aspirazio batzuk izan ditzake, baina ibilbide akademikoari dagokionez, gero eta gutxiago espero du eskolarengandik.

Horrek zer esan nahi du, eskola seme-alabak aparkatzeko toki gisa soilik ulertzen dugula?

“Eskolaren funtzio garrantzitsuenetako bat da pertsona 'nor naiz?', 'zer nahi dut?' eta 'nor gara?' galderen gainean heztea. Besteak beste, funtzio historikoa, identitarioa eta sinbolikoa du eskolak”

“Gurean Lanbide Heziketa arrakastatsua da, pedagogikoki, metodologikoki, bailaretako enpresak eta errealitatea aintzat hartzen ditu eta lan merkatutako sarbidea errazten du bania, hala ere, ikasle gehienek unibertsitaterako bidea hartzen dute”

“Ikasketa mailan gora egiteak lotura al du kalitatearekin? Ez beti. Ez dezagun pentsa gure hezkuntza kalitatezkoa denik soilik adierazle batzuei erreparatuta”

Aparkatzeko toki gisa eta ziurtagiri akademikoa lortzeko tresna gisa. Ez gaitu kezkatzen hainbeste zer eta nola ikasiko duten, baizik eta ziurtagiria lortzeak. Erdiko klaseko familietan ikusi dugu seme-alaben eskolaz kanpoko formaziorako baliabideetan inbertsioa egiteko joera handitzen dela.

Eskolari funtzio hezitzailea ukatzen zaio orduan?

Ez zaio aitortzen edo, behintzat, ez da halakorik espero. Jendeak uste du euren seme-alaben prestakuntza eta heziketa ez direla eskolatik etorriko. Gero eta nabarmenagoa da, eta lotura du “eskolako errefortzurako gastua” deitzen denarekin, hau da, betiko eskola partikularrekin. Gaur egun, eskolan zailtasunik ez duten ikasle gero eta gehiago doaz eskola partikularretara, gurasoek uste dutelako eskolak emango ez dizkien baliabideak jasoko dituztela bertan, eta horrek markatuko duela besteekiko aldea. Joera horrek beste errealitate bat ere azaleratzen du: benetan zailtasunik dituztenek ez dute eskolaz kanpoko baliabiderik. Gainera, oraindik kostatzen da egiten zaigu zailtasunik dituztenei eskolan bertan errefortzua eskaintzea. Europako herrialde askotan talde bereziak sortzen dituzte zailtasunik dituzten ikasleekin eta irakasle bereziak jartzen dizkiete. Eta eskolaz kanpoko orduetan baina ikastetxean bertan, irakasleekin eta adituekin tutoretzak izaten dituzte.

Segregazioaren gaiak ere kezkatzen zaitu...

Bai. Segregazioaren diskurtsoak tranpa dauka. Ez dut ukatzen segregazioa dagoenik; objektiboa da, oso nabarmena da, ia hogeita bost urteotan ebidentziak bildu ditugu, eskola sareen artean eta bereziki ikaste-ereduen artean polarizazioa ere badago, eta kezkatzen gaitu. Baina hiriburuetan kontzentratua dago nagusiki, eta jatorriari oso lotua. Estatus sozioekonomikoaren eta klasearen arabera diskriminazioa ere badago, baina ez da hain nabarmena, nahiz eta horri ere erreparatu behar diogun. Errealitatearen erradiografia egokia eta osoa egin behar dugu.

Biztanleriaren eboluzio demografikoa ikusita, gaia garrantzitsua da. Hezkuntzari buruzko eztabaidetan zatiketa afektiboa handia da gurean, eta sarri askotan gai batzuk eta gai horien gaineko irakurketa partzialak arma gisa erabiltzen dira, zoritxarrez. Gaia eta bere inplikazioak euskararen trinkotzean eta hedapenean, eskolako esperientzian, hezkuntza ibilbidean edota elkarrekin bizitzeari loturiko kontuetan oso garrantzitsuak dira.

Behin beharrianak identifikatuta, hezkuntza premia horien arabera antolatu behar dela diozu. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, Hezkuntza Legearen osaera prozesuan ari dira. Aukera egon liteke orain horri guztiari lekua egiteko?

Bai. Badira herri gisa oinarri-oinarrizkoak ditugun beharrianak eta horiek lehen lerroan ipini behar dira gatazka sortu arren. Dena den, kontuan hartu behar dugu baita ere guretzat nuklearrak diren beharrian batzuk gehiengoak ez dituela aintzat hartuko.

Baldintzarik ikusten al duzu legeari begira akordio zabala lortzeko?

Nik uste dut akordio zabala egon daitekeela, kontua da zeren ordainetan izango den. Gehiengo akordiora iristeko prest ikusten dut, sakonean ikusten dugulako hezkuntza sistema hau agortua dagoela. Agortua egoteak ez du esan nahi, edo agian

bai, orain artekoa txarra denik, baina eman beharrekoak eman ditu. Ditugun erronkei eta etorkizunean edukiko ditugunei erantzuteko ez du balio. Herri oso txikia gara, bailara batetik bestera alde handia dago eta, jakina, zatiketa administratiboak pisu handia du. Etorkizunera begira, oso garrantzitsua da, adibidez, eskolek autonomia izatea. Baina autonomiaren eztabaida oso arriskutsua dela uste dut.

Zergatik diozu arriskutsua dela?

Autonomia ulertzeko hainbat modu egon daitezkeelako. Malgutasuna oso garrantzitsua da. Euskararen kasuan, adibidez, helburuetan adostasuna izan beharko genuke, eta ez dakit ba ote dagoen, baina helburu horrek errealitate bakoitzaren arabera, malgutasuna izan behar du. Horrek ez du esan nahi batzuk euskaldunduko direla eta beste batzuk ez, baizik eta eskolako proiektua bestelakoa izango dela. Autonomia behar da adostasun handiko helburu horietara malgutasunez heltzeko, ez bakoitzak bere helburu propioak markatzeko. Hor dago eztabaida. Autonomia ez da norberak nahi duena egiteko, baizik eta herri gisa ditugun helburuetara gure konplexutasuna ahalik eta ongien kudeatuz iristeko.

Eskolaren antolaketa berebiziko garrantzia du: zuzendaritzak lidergoa izan behar du eta gurasoekin, irakasleekin, udalarekin eta herriko gainerako ikastetxeekin lankidetzan



aritu behar du etengabe. Horrekin lotuta dago “balio publikoa”. Kontua ez da titularitatea baizik eta eskaintzen duzunaren balioa. Eta ikastetxe baten balio publikoa gero eta handiagoa izango da bere errealitate konplexua kudeatzeko autonomia handiagoa duen heinean. Autonomia, elkarrekikoaren zentzua, erantzukizuna eta balio publikoa lotuta daude, ez ditzagun bereizi.

Askotariko beharrianak daude: pertsonari dagozkionak, pedagogiarekin eta didaktikarekin lotura dutenak, antolamenduari lotutakoak... Indarrean dagoen eredia agortuta dagoela ikusten du gehiengoak, ez dela gai ditugun helburuei erantzuteko, eta horrek akordioa lortzea erraztuko duela uste dut. Hala ere, beharrian instituzionalak ere aintzat hartu behar dira. Eztabaidan azken horiek ere agertuko dira, pisu handia dute, eta akordio posible hori zer oinarriren gainean eraikiko den baldintzatuko dute.

Beharrianen araberako antolaketa behar dela diozu. Nondik hasi behar-ko litzateke eraldaketa hori guztia eraikitzen?

Zintzotasunetik eta eskuzabaltasunetik. Esan dudan moduan “balio publikoa” gero eta gehiago aipatzen den kontzeptua da, baina ez da soilik titularitatea edo finantzaketa. Ekar ditzagun eztabaidara beste kontzeptu edo gai batzuk: balio publikoa, autonomia, gobernantza deszentralizatua, erantzukizun herrigilea, kontuak emateko kultura...

Lehenago aipatu duzu eskolaz kanpo bilatzen dutela familiek euren ustez eskolak maila akademikoan lortzen ez duena. Gizartean dagoen lehiakortasunak bultzatzen al du joera hori?

Jakina. Ez da soilik eskolak hainbat helburu lortzeko gero eta zailtasun handiagoak dituela, baizik eta horretaz gero eta kontzientzago garena. Eta eskolako eztabaidetan parte hartu beharrean eta egoera eraldatzen ahalegindu beharrean, bestelako bitartekoak erabiltzen dira: eskola partikularrak. Hori lehen ere bazegoen, baina kontua da orain zer helbururekin egiten den. Arazorik

eta zailtasunik ez duten ikasle askok eskola partikularrak jasotzen dituzte eta zailtasunak dituztenek maiz, ez dute horiei aurre egiteko modurik izaten. Horrek arrakala handitzen du. Paradoxikoa ere bada: hezkuntza komunitateko eragile nagusien artean adostasun handi samarrak egon litezke, baina era berean, familiek gero eta garrantzi gutxiago ematen diote eskolari. Eta, alde batetik, eskolarekiko espektatibak ahultzen dira baina, era berean, lehiakortasunari eta individualismoari lotutako helburuak dituzte.

Interesgarria da eskola aparkaleku gisa erabiltzearen ideia. Familia askok kanpoan lan egiten dute eta gero eta lehenago eramaten dituzte haurrak eskolara. Horren ondorioz, familiek gero eta pisu gutxiago dute haurren lehen sozializazioan. Ez ditugu haurtzaindegira eramaten sozializaziorako eta heziketarako gunea dela pentsatuz, halabeharrez eramaten ditugu, eta oharkabean, eskola modu horretara ulertzen goaz. Eta zer da eskolarengandik espero duguna? Bada, askotan ez gara pentsatzen jarri ere egiten. Egunerokoak gauzak modu automatikoan egitera eramaten gaitu. Eta askotan gu ez garenez gure seme-alaben formazioaz jabetzen, iruditzen zaigu eskolak ez duela funtzio hori betetzen, edo ezin dezakeela bete. Agian hortik ateratzen dute eskolak balio ez duenaren ideia eta pentsatzen dute aukerak sortuko direla eskolatik kanpo egiten duten horretan. Kontuz ibili behar dugu horrekin. Guk egin ditugun ikerketetan gero eta nabarmenagoa da: eskolarekiko espektatibak gero eta txikiagoak dira eta gero eta gehiago hartzen da ziurtagiria lortzeko tresna gisa. Zer ikasi, zer lagun egin, zer balioetan hezi... Hori guztia bigarren mailan geratzen da. Geurekioak gara eta seme-alabak besteen aurretik joan daitezen nahi dugu, besteekiko ardura eta elkarrekin ongi bizitzea bigarren mailan utzita.

Ez dakit zein neurritan iritsiko garen sakoneko kontu horiek eztabaidatzera. Eskolari, hezkuntza sistemari, balioei edota ibilbideei buruz gutxi hitz egiten da orokorrean. Ausardiaz jokatu behar dugu.

“Jendeak uste du euren seme-alaben prestakuntza eta heziketa ez direla eskolatik etorriko. Gero eta nabarmenagoa da, eta lotura du 'eskolako errefortzurako gastua' deitzen denarekin, hau da, betiko eskola partikularrekin”

“Gehiengoak akordiora iristeko prest ikusten dut, sakonean ikusten dugulako hezkuntza sistema hau agortua dagoela”

“Familia askok kanpoan lan egiten dute eta gero eta lehenago eramaten dituzte haurrak eskolara. Horren ondorioz, familiek gero eta pisu gutxiago dute haurren lehen sozializazioan”

ESPERIENTZIAK

'IKASLAGUN' PROGRAMA

Ikasteko laguntza baino gehiago

Gipuzkoako harrera-egoitzetan dauden haurrei errefortzu akademikoa eskaintzea da 'IkasLagun' egitasmoren helburua. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako boluntarioritza programa da eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak dira laguntza hori eskaintzen dutenak. Joana Migelena eta Joxe Garmendia EHUko irakasleek eta Iker Callado 'IkasLaguneko' partaideak azaldu dizkigute egitasmoaren nondik norakoak.

Harrera-egoitzetan dauden haur eta gaztetxoei ikasleekin laguntzea du helburu *IkasLagun* programak baina beste bat da azken helburua: babes sistemaren barnean dauden haur eta

nerabe gehiago unibertsitatera iristea, edo, behintzat, prestakuntza ibilbide luzeagoa egitea. Bertan parte hartzen duten EHUko ikasleak unibertsitate erreferente bihurtzea lortu nahi dute, haur txikienean euren burua unibertsitatean edo derrigorrezko hezkuntza-

ren ondorengo ibilbidea egiten irudika dezaten. Joana Migelena EHUko irakasleak azaldu digu zertan datzan programak: “*IkasLagun* boluntarioritza programa bat da. EHUko ikasleak



Gipuzkoako harrera-pisuetara joaten dira eta errefortzu akademikoa eskaintzen diete bertan dauden haurrei. Astean behin joaten dira, bi orduz, eta formatua bera da beti: ikaslagun bat haur bakoitzeko”.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera egindako bileran erein zuten *IkasLagunen* hazia: “Galdera nagusia zen ea zer egin genezakeen harrera egoitzetatik unibertsitatera ikasle gehiago heltzeko, edo behintzat helmuga akademikoa handiagoa izateko. Eta pentsatu genuen boluntariotza programa baten barnean errefortzu akademikoa eskaintzea aukera ona izan zitekeela”. Bilera haietan erabaki zuten Lehen Hezkuntzako ikasleekin hasiko zirela lanean. Programa 2018-2019 ikasturtean jarri zen martxan Gipuzkoan. Bost pisurekin hasi ziren, 28 ikaslerekin, eta EHUko ikasleen artean deialdia eginda, 40k eman zuten izena. Ebaluazioa ezin hobea izan zenez, aurrera egitea erabaki zuten eta hurrengo ikasturtean, 12 harrera-egoitza eta 64 haur izan zituzten. Hiru ikasturteotan, haurrek errendimendu akademikoa hobetzen dutela erakutsi du programak, baina ez hori soilik: babes sarea handitu dezaketela ere bai. Izan ere, esperientziak eta ezagutzak trukatzan dituzte egitasmoan parte hartzen dutenek. Euskara ere lantzen dute. Haur eta gaztetxo horietatik asko testuinguru euskaldunetan bizi dira, eta euskara lantzeko aukera izaten dute programari esker.

Laguntza behar dutenentzat soilik

IkasLagun programan errefortzu akademikoa behar duten haurrek soilik parte hartzen dute. Harrera-egoitza bakoitzak egiten du diagnostikoa eta haiek erabakitzen dute laguntza nork behar duen. Prozesuaren nondik norakoa azaldu digu Joxe Garmendiak: “Harrera-egoitza horietako arduradunekin harremanetan jartzen gara eta haiek zenbat ikaslagun behar dituzten eta nolako profila izan behar duten esaten digute. Orduan guk deialdia egiten dugu, eta izena ematen dutenekin bilera egiten dugu programaren nondik norakoak azaltzeko. Esaten diegun lehen gauza da ez doazela bertara terapia egitera, erreferente

‘Arrakasta’, ‘IkasLagun’ programaren aitzindari

IkasLagun programak, *Arrakasta* programa du aitzindari. *Arrakastaren* helburua, haurtzarora eta nerabezarora babestea da, eta harrera-egoitzetan dauden gazteak unibertsitatera sartzeko aukera izan dezaten eta goi mailako ikasketak arrakastaz egiteko aukera izan dezaten baldintzak sortzea. Gipuzkoan jarri zen martxan, EHUko Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Garaian Taldeko kide Joana Migelenak egindako tesitik abiatuta. Migelenak berak azaldu digu nola hasi zen guztia: “Harrera-egoitzetan zeuden haurren eskubideak aztertu nituen, horien artean guretzat bereziki garrantzitsua dena: hezkuntza eskubidea. Profesionalak eta tutoretzapean egondako gazteak elkarrizketatu nituen eta konturatu nintzen gazte horietatik oso gutxi heltzen zirela unibertsitatera: bi soilik ari ziren unibertsitate ikasketak egiten eta beste bik hasi nahi zituzten”. Beraz, unibertsitatera heltzeko jende gehiagok aukera izan zezan, proiektu berria abiatzea erabaki zuten. Gazte horien egoera zaila dela azpimarratu du Migelenak: “18 urte betetzean, harrera egoitzatik atera behar dute. Joera nagusia, Lanbide Heziketara jotzea zen lanerako sarbide azkarra lortzeko, eta oso gutxi heltzen ziren unibertsitatera. Heltzen zirenek, berriz, arazoak zituzten: nola ordaindu matrikula, materiala, ordenagailua... egoera horretan? Datu horiek aintzat hartuta, lanean jarri ginen eta *Arrakasta* izeneko programa sortu genuen”.

Arrakasta programak unibertsitatera heltzeko eta ikasketak arrakastaz amaitzeko laguntza eskaintzen die ikasleei: selektibitateko tasak ordaintzen hasi eta titulua ordaindu arte. EHUk ematen du horretarako laguntza ekonomikoa, logistikoa eta akademikoa. Ikasleari bere graduko irakasle bat esleitzen zaio tutore gisa eta ikasketak amaitu bitarteko jarraipena egiten du. Bestalde, liburuak, fotokopiak... doan izaten dituzte. Horretan laguntzen du baita ere SM fundazioak egiten duen ekarpen ekonomikoak.

Gaur egun Bizkaian eta Araban ere martxan da *Arrakasta*. 2017-2018 ikasturtean hasi ziren Gipuzkoan zazpi ikaslerekin eta ikasturte honetan, 35 ikasle dituzte: zazpi Araban, hamasei Bizkaian eta hamabi Gipuzkoan. Orain arte zortzi ikaslek amaitu dituzte ikasketak arrakastaz.

Migelenak eta Garmendiak azpimarratu dute bai *Arrakasta* eta baita *IkasLagun* egitasmoetan ere Idoia Fernandez, Berrikuntzaren, gizarte konpromisoaren eta kulturgintzaren arloko errektoreordetzako kidearen laguntza berebizikoa izan dela. Era berean, Pauli Dávila eta Luísa Naya EHUko irakasleek ere bi programetan parte hartu dutela aipatu dute.

ESPERIENTZIAK: IKASLAGUN PROGRAMA

bihurtzeko baizik. Ez da erraza, izan ere, zaugarritasun egoeran dauden ikasleengana joaten dira. Haien euskarri izatera doaz, azken batean”.

“Haurren sare soziala handitzen da eta haien erreferentia unibertsitateko ikasle bat da. Unibertsitatea existitzen dela ikusten dute. Eta bada garrantzi handia duen beste alderdi bat ere: gure ikasleak musutruk joaten dira, ez dira langileak. Haurrentzat hori oso garrantzitsua da. Egoitzetako langileek ezin diete denbora gehiegi eskaini. Behar handiak dituzte, baita emozionalak ere, eta haientzat gauza handia da laguntzen dien pertsona hori eurentzat eskusiboki izatea”, azpimarratu du Migelenak.



Ikasleak ikasleentzat eredu



Iker Callado Psikologiako ikaslea da eta hirugarren ikasturtea du hau *IkasLagun* egitasmoan parte hartzen. Hasi aurretik zuen ideia eta behin egitasmoan murgilduta topatu duena, bat datozela dio: “Arlo teorikoa beharbada ikasketetarako errefortzua izateko planifikatua dago, baina praktikan ikusten duzu hori baino askoz ere gehiago dela eta denbora asko pasatzen duzula aparteko gauzak egiten: hurrekin hizketan, jolasten... Hori ere garrantzitsua da”, dio Calladok. Langileekin harreman ona izaten dutela dio eta hurrekin, ezin hobea: “Bi ordurako joaten gara baina batzuetan denbora gehiagoz ere geratzen gara, jolasa luzatu delako, adibidez”.

Ikasle bakoitza ikasturte osoan zehar haur berarekin egon dadin saiatzen dira, eta ahal izatera, hurrengo ikasturteetan ere bai: “Niri iaz ikaslea aldatu zidaten COVID 19-a dela-eta izan ziren aldaketengatik. Pisu berean zegoen eta ezagutzen nuen, baina ez nuen inoiz berarekin lanik egin. Aurten berriro itzuli naiz lehen ikasturteko umearekin eta oso gustura gaude biok. Egia esan, hiru ikasturteetan oso gustura aritu naiz”, esan digu Calladok. Eta gauza ugari ikasten ari dela azpimarratuz jarraitu du: “Hurrekin nola egon, haiekin denbora pasatzen, erreferente izaten... ikasten ari naiz. Batzuetan kostatzen da egiten zaie etxeko lanekin jartzea, ordurako eskolan izan direla esaten dizute. Baina egiten ditugu eta zailtasun gehien duten ikasgaietan errefortzua eskaintzen diegu. Egunero apur bat egitea garrantzitsua dela erakusten diegu. Niretzat oso aberasgarria izaten ari da”. Ikaslearen arabera egokitzen direla dio: “Lehen ikasturtean LHko haur batekin aritu nintzen eta denbora gehien jolasten ematen genuen ia ez zuelako etxeko lanik izaten. Bigarreanean, berriz, DBHko ikasle bat egokitu zitzaidan eta jolasteko denbora gutxiago zuen. Egokitzen joaten gara eta materiala lortzen eta sortzen ere bai: iaz, adibidez, Fisikako ariketak egiteko sarean aritu nintzen informazio bila apenas gogoratzen nuelako ezer”.

Ahal izanez gero, egitasmoan parte hartzen jarraitzeko asmoa du Calladok eta orain, gainera, baita talde eragileko kide gisa ere: “Programaren beste aldean zer nolako lana egiten den ikusten duzu, aukera ona da eta oso aberasgarria”.

Ikasleentzat onuragarri

Migelenak eta Garmendiak azpimarratu dute IkasLagun programan parte hartzen duten EHUko ikasleek lan handia egiten dutela. Musutruk joaten dira harrera-egoitzetara: hiru kreditu lortzen dituzte trukean eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzen dizkie harrera-egoitzetarako joan-etorriak. Ikasleen artean harrera oso ona du egitasmoak eta zozketa egin behar izan dute postuak baino boluntario gehiago izaten dituztelako. Boluntarioen poltsan 250 ikasle izatera iritsi dira, hainbat gradutako ikasleak: Gizarte Hezkuntza, Psikologia, Magisteritza, Kriminologia...

Egitasmoak unibertsitatearen eta harrera-egoitzen arteko etengabeko koordinazioa eskatzen du, ikasturtean zehar jarraipena egitea eskatzen du, eta talde eragilea zabaltzea garrantzitsua dela ikusi dute, hori dela eta, ikasleak sartuko dituzte orain; Iker Callado bera, eta agian besteren bat.

Joxe Garmendiak garbi du: IkasLagunek profesionalizaziorako bidean laguntzen die ikasleei. EHUko ikasleek gaitasun pertsonalak, akademikoak eta sozialak eskuratzen dituzte, eta etorkizunean, lan munduan egoki aritzeko baliagarriak izango zaizkien errealitateak ezagutzen dituzte.



IkasLagun programa

Lan mundurako atek ere zabaltzen zaizkie. Izan ere, ikaslagun izandako hainbat ikasle gaur egun harrera-etxeetan lanean ari dira.

Ikasleak egoitzetara joan aurretik, harrera-etxei buruzko uste okerrak deseraikitzen saiatzen dira, izan ere, Migelenak dioenez, harrera-egoitzei buruzko uste okerrak izaten ditu jendeak: “Han tutoretzapean daudenek, txikiak direnean pena ematen dute, eta koskortzen direnean, ia beldurra. Biktimak dira, gurasoek ezin izan dituzte euren behar guztiak asebetu eta haiek ez dute aukeratu egoitzan

egotea, deserrotuta egoten dira eta, gainera, etiketatu egiten ditugu”.

IkasLagunek unibertsitatearen eta errealitatearen arteko lotura egiten duela azpimarratu du, bestalde, Garmendiak: “Unibertsitatean ikerketa asko egiten dira baina horietako askok ez dute eguneroko bizitzarekin, gizartearen beharrekin ia loturarik, maila akademikoan besterik ez dira geratzen. Hemen, ordea, lotura erabatekoa da eta egitasmo honen balio erantsia gizartean egiten duen lana da. Oso aberasgarria da horrelako proiektuak garatzea”.



“Galdera nagusia zen ea zer egin genezakeen harrera-egoitzetatik unibertsitatera ikasle gehiago heltzeko, edo behintzat helmuga akademiko handiagoa izateko”

Joana Migelena

EKARPENAK

HEZKUNTZA SOZIOLINGUISTIKOA

Hezkuntza soziolinguistikoa: Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena

HUHEZIn, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Bigarren Hezkuntzako Masterrean Iزارo Arrutik eta Sandra Prietok elkarrekin egindako Master Amaierako Lanaren laburpena ekarri dugu 'Ekarpenak' atalera. Euskal Herriko gazteen profil soziolinguistikoa identifika daitezkeen bi ahulgunetatik abiatu dute lana: ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen desoreka, batetik, eta aurreiritzietan eragiteko beharra, bestetik. Soziolinguistika klusterraren Txillardeggi-Hausnartu saria irabazi du lanak.

Lan hau Euskal Herriko gazteen profil soziolinguistikoa identifika daitezkeen bi ahulgunetatik abiatzen da: ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen desoreka, batetik, eta aurreiritzietan eragiteko beharra, bestetik. Hori horrela, adituek diote soziolinguistikari eta hizkuntza-ekologiari buruzko hausnarketa egiteak eta ezagutza zientifiko hori ikasleei transmititzeak modu positiboan eragin dezakeela gazteen hizkuntza-ohituretan, ikasleen kontzientzia linguistikoa eta hizkuntza-aniztasunaren gaineko pertzepzio eta jarreretan. Izan ere, kontzientzia eta gogoeta soziolinguistikoak ezinbestekoak dira euskararen eta horrelako hizkuntza gutxituetan, hiztunek hizkuntzaren hautua egiteko eta, euskaraz bizi nahi badute, horretarako tresnak izateko.



IZARO ARRUTI
Soziolinguistika ikerlaria

Hizkuntza-ekologiaren teoriak, berriz, hizkuntzekiko (eta, beraz, hiztunekiko) errespetuzko jarrerak eta balioespena garatzea ahalbideratu dezake. Era berean, maila desberdinetan bada ere, EAEko, Nafarroako zein Ipar Euskal Herriko curriculumek ere hori lantzea beharrezkoa dela ezartzen dute. Gauzak horrela, gure ikerlanaren helburu nagusiak honako hauek dira: Euskal Herrian soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lantzeko dauden materialak eta baliabideak biltzea, horiek aztertzea eta sailkatzea, hezkuntza-komunitateko askotariko eragileek gaion lanketaren errealitateaz dituzten pertzepzio eta iritziak ezagutzea, eta osatutako sailkapena hezkuntza-komunitatearen eskura ipintzea.

Aipatutako helburuak betetzeko,



Euskal Herriko hezkuntza-komunitateko 33 eragile edo pertsona elkarrizketatu ditugu, besteak beste, Soziolinguistika Klusterra, Berritzeguneak, EIMA Katalogoa, hainbat aholkularitza-talde zein ikastetxe, eta hainbat irakasle¹. Elkarrizketa horietatik ateratako emaitzak hiru bloketan banatu ditugu (bloke bat helburu bakoitzeko). Lehen emaitzak material eta baliabideen bilketa eta sailkapenari lotuak daude. Guztira 169 material eta baliabide bildu eta sailkatu ditugu. Bilketa horretan, material edo baliabide bakoitzaren inguruko informazioa biltzen duten deskribapen-fitxak sortu ditugu, horietan hainbat alderdiren nondik norakoak azaltzeko. Beste helburuetako bat sailkapena denez, bildutako materialak (dagokion deskribapen-fitxarekin batera) formatuaren eta modalitatearen arabera sailkatu ditugu, eta material bakoitzak jorratzen dituen edukiak zehazteko, taula bat sortu dugu. Bi sailkapen horiek eta taula ondorengo helbide honetan ikus daitezke: <https://labur.eus/Tx5MP>.

Bigarren emaitza Euskal Herriko ikastetxeetako errealitatearen gainekoa

da. Hau da, zer pertzepzio eta iritzi dituzte elkarrizketatu ditugun pertsonen eta eragileek hezkuntza arautuan soziolinguistikaren eta hizkuntza-ekologiaren gainean egiten den lanketari buruz? Alde batetik, Kike Amonarrizek eta UEMAK egindako ikerketa edo diagnostikoak² jaso ditugu, eta, bestetik, hezkuntza-komunitateko pertsonen eta eragileen iritziak eta pertzepzioak. Horiek guztiak bat datoz puntu askotan, eta honela laburtu ditugu: lehenik, hezkuntza arautuan, eskasa da soziolinguistikaren eta hizkuntza-ekologiaren gaineko lanketa, eta lantzen den kasuetan, nahiko azalekoa izaten da. Kike Amonarriz diagnosticatzen du gehien lantzen diren gaiak euskalkiak eta gaur egungo egoera soziolinguistikoa direla, eta saiakera gutxi daudela lanketa mikro-mailatik egiteko, hizkuntzen gaineko emozioetara eta bizipenetara jaisteko. Bigarrenik, alde handia dago ikastetxeek lanketa horri ematen dioten garrantziaren eta horretarako erabiltzen dituzten materialen artean. Izan ere, elkarrizketekin hasi ginenean, hainbat erakundek ikastetxe jakin batzuekin kontaktuan ipintzea gomendatu ziguten. Hirugarrenik, Kike Amonarriz diagnosticatzen

agertzen den moduan —eta elkarrizketatu ditugun irakasleen iritziekin ere ikusi dugu—, irakasleak soziolinguistika eta hizkuntza-ekologia lantzearen alde daude. Laugarrenik, irakasleek prestakuntza falta dute. Behar hori argi adierazi dute Amonarrizek elkarrizke-

Desoreka handia dago curriculumaren eta testuliburuaren artean. Testuliburuak, oro har, ez dute betetzen curriculumak ezarritakoa, eta kontuan hartuta irakasleek, normalean, curriculumari baino testuliburuari jarraitzen dietela, arazo larria izan daiteke hori



Hutsunea dago irakasleen prestakuntzan, eta gaion lanketa ezagutza hutsa transmititzea baino gehiago dela kontuan harturik, prestakuntza hori ezinbestekoa da

tatutako irakasleek. Haiek diote normalizazio-mintegiek ez dela nahikoa eta, gainera, prestakuntza guztiek jaso beharko luketela eta ez soilik euskarako irakasleek. Gure landa-lanean ikusi dugu IRALek, adibidez, ez duela gaion inguruko prestakuntzarik eskaintzen eta kanpo-eragileek irakasleei zuzendutako prestakuntza gutxi eskaintzen dutela. Bosgarrenik, irakasleek adierazten dute materiala mailakatu eta egokitu egin behar dela, antolaera didaktikoaren bidez. Seigarrenik, hizkuntza-ekologiaren teoriak eta lanketak presentzia txikia daukate. Elkarrizketetan, ikusi dugu pertsona eta eragile askok termino hori ez dutela barneratuta. Amaitzeko, ikas-

tetxeetan, nabarmena da aholkularitza-taldeen eta aisialdi-taldeen presentzia gaiok lantzeko, eta horiek elkarrizketatu ditugunean, eskaintza zabala dutela ikusi dugu.

Emaitzekin bukatzeko, Galiziako ereduari buruz atera ditugun ondorioak aipatuko ditugu. Gure ikerlanaren helburu nagusia ez bazen ere, landa-laneko elkarrizketen prozesuan, aukera sortu zitzaigun Galizian hezkuntza arautuan gaion lanketa nola egiten duten ezagutzeko. Modu horretan, Nel Vidal eta Olga Abeixon galizierako irakasleak elkarrizketatu genituen, eta elkarrizketa horretatik ateratako emaitzei tartea eskaini nahi izan diegu gure lanean. Galiziako kasuan, testuliburuaren eta curriculumen artean koherentzia nahikoa dagoela ikusi dugu. Ezagutu ditugun eskuliburuetan, curriculumean aipatzen den 5. blokea, *Lingua e Sociedade*, bere horretan agertzen da. Bestalde, testuliburuak osatzeko materialak zein diren oso argi daukate irakasleek: haien hitzetan, “erreferenteak” dira. Amaitzeko, Galizian ere, kanpo-eragileek esku hartzen dute lanketa horretan, eta, adibide gisa, aurreiritzi linguistikoen inguruan ezaguna egin den lantegia aipatu digute bi irakasleek.

Bilketa-lana egin ostean eta ikerketatik ateratako emaitzak aintzat harturik, hauek dira gure ondorioak eta azken gogoetak:

Lehenik, nahiz eta *soziolinguistika* terminoaren ahalik eta adiera zabalena hautatzea aproposagoa zela azaldu dugun marko teorikoan, hezkuntzan, gaion lanketarako, tresna gisa ikusten dugu soziolinguistika, gazteek beren errealitate soziolinguistikoa hobeto ulertzeko eta hor eragiteko. Beraz, zein lanketa mota lehenetsi adostu behar da (profil soziolinguistikoen arabera), soziolinguistika ikasleentzat tresna bat izan dadin. Bigarrenik, EAEko curriculumak oinarri harturik, ateratako ondorio nagusietako bat hauxe izan da: desoreka handia dago curriculumaren eta testuliburuaren artean. Testuliburuak, oro har, ez dute betetzen curriculumak ezarritakoa, eta kontuan hartuta irakasleek, normalean, curriculumari baino testuliburuari jarraitzen dietela, arazo larria izan daiteke hori. Dena den, esan bezala, alde handia dago EAEko, Na-

Hezkuntza soziolinguistikoa lantzearen alde egiten duten kideen arteko lankidetzareagotu beharko litzateke hezkuntza-komunitatean. Irakasle batek egiten duen lana beste bati baliagarria gerta dakioke

farroako Foru Komunitateko eta Ipar Euskal Herriko curriculumen artean. Beraz, batetik, azken horiek osatzeko ahalgintza egin beharko liratekeela uste dugu, eta bestetik, curriculumak irakasleen erreferentzia izan daitezten lortu beharko genukeela. Hirugarrenik, gure lanean behin eta berriz aipatu den moduan, hutsunea dago irakasleen prestakuntzan, eta gaion lanketa ezagutzaren hutsa transmititzea baino gehiago dela kontuan harturik, prestakuntza hori ezinbestekoa da irakasleak ahalgintzarako. Gauzak horrela, Hezkuntza Saileko IRALE programan, irakasleei hezkuntza soziolinguistikorako prestakuntza eskaini beharko litzateke, eta kanpo-eragileek lantegiak sortzeko duten gaitasuna ikusita, onuragarria izango litzateke irakasleen prestakuntzarako lantegi gehiago eskaintzea. Bestetik, irakasleak ahalgintzarekin batera, babesguneak sortzeko duen garrantziaren gaineko kontzientzia ere piztu beharko litzateke, babesguneak ezinbestekoak baitira hezkuntza soziolinguistikokoak barne hartzen dituen gai konprometituei buruz jarduteko. Laugarrenik, kanpo-eragileek hezkuntza arautuan egiten duten lana ezinbestekoa dela ikusi dugu. Apropo da irakasleek, noizbehinka, irakaslea ez den

norbaitekin lan egitea. Baina, jakina, horrek ezin du ordezkatu irakasleak egunerokoan egin beharko lukeen lana. Beraz, hezkuntza soziolinguistikoa lantzearen alde egiten duten kideen arteko lankidetzareagotu beharko litzateke hezkuntza-komunitatean. Irakasle batek egindako lana beste bati baliagarria gerta dakioke, eta kanpo-eragileek, aurrez zer lan egin den jakinda, eskaintza hobeto antola dezakete. Uste dugu gure lana lehen urratsa izan delazentzu horretan. Bosgarrenik, iruditzen zaigu garrantzitsua dela Euskal Herriko errealitate soziolinguistikokoaren antzeko errealitatea duten hizkuntza-komunitateen ereduak ezagutzeko, inspirazio-iturri izan daitezkeelako. Adibidez, Galiziako kasuan ikusi dugun moduan, curriculumaren eta eskuliburuen artean koherentzia handiagoa dute han. Azkenik, uste dugu gure lanak ekarpena egin diezaiokeela hezkuntza-komunitateari. Izan ere, ikusi dugu ziurren arlo horretan dagoen ahalgintzerik nabarmenena irakasleen prestakuntza dela, eta lagungarri gerta dakie dagoen materiala euren eskura, sailkatuta eta aztertuta eskaintzea. Bidean lagun izan ditugun pertsonengandik eta eragileen-

gandik jasotako zorion eta animo-mezuek, eta baita Txillardegia-Hausnartu saria irabazi izanak ere, argi erakusten dute hau beharrezkoa den lanaren hasiera dela. Horregatik, uste dugu lan honek jarraipena izan behar duela.

**Oharra: ikerlana bere osotasunean argitaratuko da 2022ko Bat Soziolinguistika aldizkariaren lehen zenbakian, eta lanean ari gara ikerlanaren emaitza nagusia paperaz haragoko formatuan argitaratzeko.*

¹ AHIZE aholkularitza, Arizmendi Ikastola, Azkue Artxiboa, Bartzelonako EOI, Bartzelonako Euskal Etxea, Bernat Etxepare Lizeoa, BHI Arrasate Institutua, Ebeta hizkuntza-zerbitzuak, EIBZ, Eleizalde Ikastola, Emun aholkularitza, Erabil kolektiboa, Euskal Herriko Ikastolak, Euskal Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Topagunea, Galiziako irakasleak: Olga Abeixon eta Nel Vidal, Herrikide ikastetxea, Ikastolen Elkarteak, Irale, Ikaslar, Laskorain Ikastola, Seaska, Ttakun Kultur Elkarteak, MintzaLasai, UEMA, Urtxintxa elkarteak, Juan Carlos Etxegoien Juanarena "Xamar", Kike Amonarri eta Txerra Rodriguez.

² UEMAK heziketa soziolinguistikokoan eragiteko Hedatu hezkuntza proiektua martxan ipintzeko egindako diagnostikoa, eta Kike Amonarriek Eskola Hiztun Bila jardunaldietarako hezkuntza soziolinguistikoa buruz egindako galdeketa eta diagnostikoa.

Definizioak

Zer da soziolinguistika? Soziolinguistikari definizio ugari ematen zaizkio, baina adituak bat datoz tresna bat dela esatean. Guri Arizmendi ikastolako *Bazara* proiektuan (2010) erabilitako definizioa gustatu zaigu gehien. Han, hizkuntzaren medikuntza moduan definitzen da soziolinguistika. Soziolinguistika hizkuntzaren egoera diagnostikatzeko eta tratamendu egokiak proposatzeko gai den zientzia edo termometroa dela dio definizio horrek.

Zer da hizkuntza-ekologia? Adostasun handiagoa dago hizkuntza-ekologia definitzeko orduan. Adituek diote naturan zein hizkuntzetan gertatzen diren fenomeno askoren mekanismoak antzekoak direla, eta bioaniztasuna defendatzea hizkuntza-aniztasuna defendatzearen antzekoa izango litzatekeela.

Materialak eta baliabideak

Material gisa hartu ditugu soziolinguistika eta hizkuntza-ekologiaren gaiak lantzen dituzten materialak. Baliabideak, berriz, helburu horretarako sortu ez badira ere, lanketa egiten laguntzen duten tresnak izango lirateke.

AHALDUNTZE ESKOLA

SARDE SARDEXKA ELKARTEA

Baratzetik mahairako bidaia arduratsua



Sardetik sardexkarako bidea egiten dute jaten ditugun elikagai askok baina maiz ez dugu jakiten zer dagoen ahoratzen dugun horren atzean. Nola sortu da? Non ekoiztua da? Nork landatu edo landu du? Ingurumena errespetatuz sortua da? Ekoizleen lana balioetsi dugu? Lurra, ingurunea eta geure burua zainduko al ditugu produktu hori kontsumituta? Gai horien guztien gaineko sentsibilizazioa bultzatzea du helburu Sarde Sardexka elkarteak.

Nekazaritza eta elikadurari buruzko gaitan sentsibilizazioa bultzatzea, pentsamendu kritikoa eta elikagaien kalitatea ebaluatzeko gaitasuna bultzatzea, ingurunea zaintzen duten eta animaliak errespetatzen dituzten tokiko produkzioak ezagutzea eta lurraldeko ekoizle eta artisten arteko topaketak eta elkartrukeak bultzatzea. Horiek dira Sarde Sardexka elkartearen helburu nagusiak. Lapurditik egiten dute lan Euskal Herrira begira, baina Biarnon eta Landetan ere aritzen dira.

2014an sortu zuten elkartearen Jenofa Irubetagoienak eta Gabrielle Arre-

se-Igorrek. Irubetagoienak enologoa da lanbidez eta atzerrian lanean aritu eta gero, Euskal Herrira itzuli zela kontatu digu: “Ardoaren inguruan formakuntzak eta animazioak proposatzen hasi nintzen. Publiko helduari zuzenduriko tailerrak ziren eta haurrak ere ukitu nahi nituen. Orduan hasi nintzen eskoletan gustu tailerrak proposatzen. Zentzu pizte tailerrak ziren, dastamenaren metodoa eta janariaren deskubritzea azaltzen nuen bost zentzumenak erabiliz. Xerkatu nuen zer egiten zen hemen Euskal Herrian horren inguruan, eta nire lankideak haurrentzat gauza bera egiten zuela ikusi nuen. Elkar-

ezagutu genuen eta horrela sortu genuen Sarde Sardexka elkartearen”.

Helburu orokorra publiko zabala sentsibilizatzea da, elikagai osasuntsu, iraunkor eta eko-arduratsuari dagokienez. Eta horretarako hainbat proiektu garatzen dituzte. Horien artean 2020 urtean sortutako *Lur Istorioak*, adibidez: “Baserrietan ibiltzen gara eta familientzako gertakari txiki bat antolatzen dugu etxaldeko bizitza, animaliak, produktuak... ezagutzeko”. Elkarteren batek edo ekoizleren batek bere produktua beste era batera ezagutarazi nahi badu, horretarako euskarriak ere sortzen dituzte. Euskarriak eta materialak



beharren arabera egokitzen dituzte, haiek sortzen baitituzte euskarri eta tresna pedagogiko guztiak. Proposatzen dituzten aktibitateen artean daude eskoletan egiten dituzten tailerrak.

Eskoletako tailerrak

Eskoletan hainbat tailer eskaintzen ditu Sarde Sardexka elkarteak eta doakoak izaten dira denak: “Diru laguntzak xerkatzen ditugu eta eskoletan programak urrikir proposatzen ditugu. 2019an sortu genuen *Elikekintza* izeneko tailerra. Euskal Hirigune Elkargora jo genuen hastapenetan eta diruz lagundu gintuzten. Urtero emendatzen dute diru kopurua eta eskola gehiagotara iristen gara. Agence Régionale de la Santé-tik eta Departamendutik ere dirua jasotzen dugu”, azaldu digu Irubetagoienak.

Tailerretan 2. eta 3. zikloentzako ekintzak proposatzen dituzte, beti ere bertako produktuak eta bertako ekoizleak aintzat hartuta. Eskolak erabakitzen du epea: batzuek jarraian egin nahi izaten dute tailerra eta beste batzuek hilero egun batez egitea hautatzen dute. Guztia jolasen bidez egiten dute eta Irubetagoienak eta Arrese-Igorrek eskuz sortutako materialak erabiltzen dituzte.

Eskoletan eskaintzen dituzten tailerretan hainbat gai lantzen dituzte. Horien artean, elikadura. Tokiko barazki eta fruitu biologikoak proposatzen dituzte eta bost zentzumenak erabiliz aztertzen dituzte. Euskal Herriko produktuak dastatzeko tailerra ere egiten dute: “Ossau-Itati gasna, Ezpeletako piperra, euskal kinto txerria, eztia, sagarrak... dasta ditzakete. Adibidez, sagarra hautatzen badute, dastaketa tailerra egiten dugu eta ikusmena erabiliz sagarraren kolorea behatzen dugu, argitasuna... Usaimena erabiliz zein sagar mota den ezagutzen dute... Sagarra ezagutzeko eta dastatzeko prozesua egiten dugu. Hiztegia ere ainitz lantzen dugu”, azaldu digu.

Elikaduraren eta osasunaren arteko loturari ere garrantzia ematen dio Sarde Sardexkak. Horretarako 2016an sortu zuten maletako jokoak erabiltzen dituzte, ziklo bakoitzean



Jenofa Irubetagoienak, Sarde Sardexka elkarteak prestatutako maleta ondoan duela.

ezberdinak. Ingurumena, kontsumoa, ondare kulturala eta osasunaren gaiak lantzen dituzte, eta Irubetagoienak azaldu digunez gai bakoitzeko bi jolas egiten dituzte: “Jolas guztiak bi familien inguruan sortu ditugu: Sarde familia eta Sardexka familia. Sarde familia laborari familia da eta Sardexka familia, kontsumitzaileak dira. 2. ziklokoekin elikaduraren piramidea lantzen dugu eta hondakinak banatzeari buruz hitz egiten dugu. Zer egin dezaketek planeta salbatzeko, orekaz elikatzeko jarraibideak... Haiek hausnarketa egin dezaten nahi dugu. 3. zikloko-

kin, berriz, laborantza herrikoien printzipioak ezagutzen ditugu. Pista jokoa egiten dute eta tailerra pintxoak eginez amaitzen dugu”.

Sarde Sardexka elkartearen asmoa lanerako toki finko bat izatea da norbanakoak eta eskolak hara joan daitezten. Baratza izango du toki horrek, bertan tailerrak egin ahal izateko eta permakulturaren inguruan aritzeko. 2023rako martxan izatea nahiko lukete, hara hurbiltzen den orok sardetik sardexkarako prozesuaren nondik norakoak bertatik bertara ezagut ditzan.

‘Euskararen urtaroa’

Euskal Hirigune Elkargoak antolatutako *Euskararen Urtaroa* ekimenean ere parte hartu du Sarde Sardexka elkarteak. Janariaren, artearen eta musikaren arteko lotura egin zuten eta jakiak musika tresna gisa erabiltzea proposatu zuten. Hala, parte-hartzaile bakoitzak barazki edo fruitu bat zuen (piperra, hurra, intxaurra...) eta horiek hautsiz eta murtzikatuz, denen artean janariarekin nolako soinuak sor daitezkeen ikusi zutela azaldu digu Irubetagoienak: “Bakoitzak bere esperientzia egiten du, eta meditazio moduko bat ere bada zeren dena poliki eta isilean egiten da. Azken helburua, talde bakoitzak mota bateko soinuak eginez, kantua sortzea zen eta hala egin zuten. Esperientzia oso polita izan zen”.

GALDEIDAZU

EAEKO HEZKUNTZA LEGE BERRIARI BEGIRA, MARRA GORRIAK JARRI BEHAR AL DIRA EUSKARARI DAGOKIONEZ?

2021eko urtarrilean, **Hik Hasik** ikaragarri lerroburu egokia jarri zuen aldizkariaren azalean, Euskalgintzaren Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, ezagutzaren unibertsalizazioan sakontzeko antolatutako jardunaldien kariatzeko **Handira jokatzeko garaia da**. Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-lege berri baterako prozesua abian jarriko zela artean jakin ez arren, hezkuntzako eragile nagusiek berretsi zuten euskararen ezagutza eta erabilera unibertsalizatzeak lehentasunezko gaia izan behar duela, eta, horretarako, haiek jorratutako *Ikasle Euskaldun Eleaniztunak Sortzen* proposamena mahai gaineratu behar zela berriz ere. Hori esan eta urtebetera, Eusko Legebiltzarrak egun indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea aldatzeko prozedurari ekin dio.

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak ezarri zuen azken hamarkadotan indarrean egon den hizkuntza-ereduen sistema. Horrela, Euskararen legeak euskara ezagutzeko eskubidea aitortu arren, eta 1/1993 Legeak berak ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan hizkuntza ofizialetan gaitasun egokia izan behar dutela zehaztu arren, konjuntzio-sistemaren alde egin beharrean, hizkuntza-ereduen alde egin zen EAEn, eta beraz, gurasoen esku utzi zen ikasleek euskara-gaitasuna lortzeko hizkuntza-eredua aukeratzea.

Esaerak dio, bai, igarotako urak ez duela errotarik mugitzen, eta ez dugu orduko errota mugitzeko asmorik. Halere, garrantzitsua da orduko erabakiak

utzitako ondorioei erreparatzea, baldin eta etorkizunean estropezu egin nahi ez badugu.

Non gaude?

Zalantzarik gabe hezkuntza-sistemak ekarpen ikaragarria egin dio euskararen normalizazio-prozesuari. Kontuan hartu behar dugu egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzak hiztun berriak behar dituela, eta hiztun berriak lortzeko dauden hiru iturrietako bat hezkuntza dela (transmisioarekin eta helduen euskalduntzearekin batera). Horrek esan nahi du, beraz, azken urteotan milaka hiztun berri ekarri duela hezkuntza-sistemak. Aitortza hori egitea beharrezkoa da.

Halere, aitortza hori egitea bezain beharrezkoa da ikustea zer utzi duen bidean hizkuntza-ereduen sistemak: zenbat ikasle utzi duen euskararen gaitasun egokirik gabe. Aztiker Ikergu-neak datu esanguratsuak azaldu zituen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean aurkeztutako *Euskalduntzerako hezkuntza akordio bat* txostenean, ISEIk argitaratutako ebaluazioak oinarri. Horietan oinarrituta eta 2021eko Ebaluazio Diagnostikoaren arabera, LH4n, ikasleen % 62,2 elebiduna da, eta DBH2n, % 45,6. Hau da, alderantziz esanda, LH4ko ikasleen % 37,8k eta DBH2ko ikasleen % 54,4k ez du elebitasunaren helburua lortzen.

Euskararen kasuan, LH4ko ikasleen % 34,1ek eta DBH2ko ikasleen % 53,3k ez du euskara maila nahikoa eskuratzen. Hori horrela izanik, azpimarratu behar da gaztelania ez dakitenak



PAUL BILBAO SARRIA Euskalgintzako Kontseiluko Idazkari Nagusia



oso gutxi direla eta, denboran aurrera egin ahala, zerora hurbiltzen direla. Hortaz, euskalduna elebidun bihurtuko da, goiz ala berandu. Gaztelania dakiena, aldiz, elebatar edo elebidun izango da.

Aztiak aurkeztutako datuen arabera, helburuaren ez-betetze maila ez da homogenea sare eta hizkuntza-eredu guztietan. A erudian, ia inork ez du helburua betetzen sare publikoan, ez LHn eta ez DBHn. Itunpeko sareko A erudian, LHn, erdiak baino gehiagok ez du betetzen, eta DBHn, % 80koa da proportzio hori. B erudari dagokionez, sare publikoan, elebitasuna betetzen ez dutenak bi heren dira LH4n, eta % 80 izatera iristen dira DBH2n. Eta itunpeko sareko B erudian, % 44tik % 64ra handitzen da. Azkenik, D ereduak ere ez du bermatzen elebitasuna. LH4n, sare publikoko D erudian, ikasleen % 32,8k ez du elebitasunaren helburua lortzen, eta itunpekoan, % 23,6k. DBHn, % 49,1era eta % 57,8ra handitzen dira proportzio horiek.

Bi ondorio dakartza horrek: indarrean dauden hizkuntza-ereduen artean, batek erakusten du, osoki ez bada ere, hizkuntza ofizialetan gaitasun egokia bermatzeko aukera eskaintzen duela. Hortaz, hezkuntza-sistemak ikasleak euskalduntzeko duen betebeharrak modu sistematikoa edo ia sistematikoa saihestu dute zenbait eredu. Bestalde, bada beste elementu azpimarragarririk; hain zuzen ere, azken hamarkadetan zenbat ikasleri ukatu zaion euskara ezagutzeko eskubidea. Izan ere, lehen zerrendatutako ehuneko barruan, herritarrak daude, sistemak euskara-gaitasun egokia eman ez dien milaka herritar, euskara ezagutzeko eskubidea bermatu ez zaien milaka biztanle.

Bestalde, askotan aipatu da, arrazoi osoz, gurasoen joera izan dela seme-alabak D eredura bideratzea. Azken hamarkadetakoa datuek hori erakutsi dute. Dena den, fenomeno berri bat gertatzen ari da. Izan ere, matrikulazio-datuetan oharitu gara azken ikasturteetan, eta LHn, gora egiten ari dela A eredura jotzen duten ikasle atzerritarren ehunekoa eta eredu horretan biltzen direla ikasle horiek. Horrekin batera, jaiotzetasaren jaitsieraren ondorioz, ehuneko altuagoa hartzen dute munduko beste toki batzuetatik etorritako hemengo

ikasleak matrikulatzen direnek. Eta, noski, horrekin ez dugu jarri nahi, inondik inora ere, inolako erantzukizunik etorri berrien bizkarrean. Aitzitik, datuek joera hori erakusten badute, sistemak eredu bat abian jarri beharko du, derrigorrezko hezkuntza dauden guztiek, edozein jatorri geografiko, sozial edo linguistikoa dutela ere, euskararen ezagutza egokia lortu dezaten.

Nola lortu? Proposamen teknikoa

2008an, **Hik Hasiko** kideen zuzendaritzapean, Kontseiluak *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* izeneko proposamena aurkeztu zuen, Deustuko Unibertsitateko Auditoriumean. Hiru urteko prozesuaren ondorioa izan zen, eta Euskal Herriko Ikastolak, Sortzen, EHIGE eta Kristau Eskola eragileek hartu zuten parte, bai eta hainbat diziplinatako adituek ere, besteak beste, Matilde Sainzek, Mari Jose Azurmendik, Paulo Iztuetak eta Felix Etxeberriak.

Proposamena egin aurretik, eragileok azterketa integrala egin genuen, hain zuzen ere, azterketa juridikoa, psikolinguistikoa eta pedagogikoa, soziolinguistikoa eta operatiboa. Luze joko luke ondorio guztien azalpena egiteak, baina badira, gure ustez, etorkizunari begira balio berezia dutenak. Horrela, azterketa juridikoaren ondorioetan jaso zen egun indarrean dagoen legeriak eta ofizialtasunak badituztela hainbat ondorio juridiko. Hartara, herritarrei euskara ezagutzeko eskubidea aitortzen zaien heinean, hezkuntza-sistemak, bai ala bai, hizkuntza ofizialetan gaitasun egokia eskuratzeko tresnak jarri behar ditu ikasle guztien eskura. Horrek esan nahi du, beraz, hezkuntza-sistemak helburu izan behar duela derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek euskara-gaitasun egokia izatea. Afera ez da, beraz, ea ikasleek edo gurasoek nahi duten ala ez; sistemak tresnak jarri behar ditu gaitasun hori lortu dezaten; alegia, hezkuntza-sistemak betebeharrak hori du. Horrekin batera, azterketa juridikoaren beste ondorio garrantzitsu bat izan zen hezkuntza-sisteman egin beharreko eraldaketa lege baten bidez egikaritu beharko zela; ez, ordea, dekretu edo maila apalagoko araudi batekin.

Aipatutako azterketako ondorioak kontuan hartuta, *Ikasle Euskaldun*

Gaztelania ez dakitenak oso gutxi dira, eta, denboran aurrera egin ahala, zerora hurbiltzen dira. Hortaz, euskalduna elebidun bihurtuko da goiz ala berandu

Eleanitzak Sortzen proposamenak etorkizuneko hizkuntza-eredu orokortuaren hiru ardatz nagusiak zehaztu zituen. Lehenak etapa eta ziklo bakoitzean hizkuntzen arteko denbora banatzeko proposamena jasotzen zuen. Oinarri gisa, proposatzen da euskara izatea, murgiltze- eta mantentze-ereduen bidez, eskola-hizkuntza. Hori oinarri nagusia da; baina bestelako zehaztapenak ere bildu ziren, euskararen irakaskuntza bereziki zaintzea, taldearen osaera kopuru aldetik jasangarria izatea, aurretiazko ebaluazio glotobiografikoa egitea, etxeko hizkuntzen inguruko sentsibilizazio-plana egitea, eta abar.

Bigarren ardatza hizkuntza-proiektuari buruzkoa da, ikastetxe bakoitzak nahitaez egin beharrekoa. Hizkuntza-proiektuak ikastetxearen, ikasleen zein ingurune hurbilaren errealitateari erreparatuko dio, dela linguistikoa, dela soziolinguistikoa, dela soziala, dela ekonomikoa... Horren ondorioz, behar partikular horiei begirako proiektua osatu beharko da. Hizkuntzen arteko loturari ere erreparatuko dio, eta ahozko komunikazioak izan beharko du estrategia nagusia. Hau da, hizkuntza-egitasmo guztiak bildu eta uztartuko dituen plana jorratu beharko da. Horrexegatik, beraz, hizkuntza-proiektuak hizkuntzak irakasteari eta erabiltzeari loturiko alderdi guztien plangintza finkatu eta zehaztuko du. Proiektuak hizkuntzen ikaskuntzari eta erabilerari dagozkien helburuak, kompetentziak, metodologia eta ebaluazioak bildu beharko ditu, eta nola ez, horiek lortzeko tresna, neurri eta bitartekoak erabaki eta esleituko ditu.

Hirugarren ardatza ebaluazioari lotzen

Iruzurra litzateke egun ikasle guztiak euskalduntzen ez dituen hizkuntza-ereduen sistemarekin aurrera egitea, lege-iruzurra, besteak beste

zaio, hain zuzen ere, B2 maila lortzeko helburua egoki neurtzeko ebaluazio-tresnaren diseinuari. Halere, ebaluazioa ez da helburu gisa hartzen, baizik eta tresna hezigarri gisa. Horrexegatik, proposatzen den ebaluazioa izaera hezigarria eta deskriptiboa izango du, eta jarraitua izango da. Hortaz, agerian utziko du non jarri behar diren laguntza-bideak eta indartze-neurriak. Hau da, ipinitako helburuek eta diseinutako plangintzek duten garapena eta eraginkortasuna neurtzeko tresna gisa baliatzeko eta hizkuntzen irakaspenaren zein ikaspenaren egoera erakusteko balio beharko du ebaluazioak.

Hiru ardatz nagusi horiek osatzen dute, beraz, ikasle euskaldun eleaniztuenak sortzeko proposamena.

Proposamen teknikitik erabaki politikora

Legearen inguruko eztabaida hasiko dela iragarri denetik, bi korapilo azaleratu dira. Batetik, hizkuntzaren inguruko korapiloa, eta bestetik, finantzaketaren eta ikastetxeen titularitasunaren ingurukoa. Korapiloak dira, eta lege berriak askatu beharko ditu, noski. Horrexegatik, Euskaingintzaren Kontseiluak hasieratik hartu du hizkuntzaren inguruko korapiloa askatzen laguntzeko konpromisoa.

Izan ere, ez gaude arazo tekniko baten aurrean. Aurretik esan dugu zein den bidea, zein den modua, hezkuntza-sistemak duen betebeharrari egoki erantzuteko. Zorionez, azken hamarkadotan, milaka herritar euskaldundu ditu hezkuntza-sistemak, eta norabidea zein den erakutsi digu. Halere, beste milaka herritar euskaldundu gabe geratu dira, eta aurreikusten dugu, egungo hizkun-

tza-ereduen sistemak bere horretan jarraitzen badu, ez dela bermatuko belaunaldi berrien euskalduntzea. Hortaz, ikasteko eredu orokortuaren ezarpena ahalbidetuko duen erabaki politikoa hartzeko eragin behar dugu gizartetik.

2021eko ekainaren 19an, askotariko eragileek (ehunetik gora) *Batuz Aldatu* adierazpena aurkeztu genuen, Donostiako Kursaal jauregian. *Batuz Aldatu* adierazpenak etorkizuneko hizkuntza-politiken norabidetzeak zehaztu zituen. Horrela, politikek bi ardatzi jarraitu behar zietela adostu genuen eragileok: ezagutzaren unibertsalizazioa eta euskararen erabilera erosorako espazioak. Eta, horrekin batera, hezkuntza-sistemak zein norabideri jarraitu beharko diren zehaztu genuen: euskaraz eroso arituko diren ikasleak hezteko, murgiltze-eredua ezarri behar da ikasteko eredu orokor gisa. Inor bazterrean utziko ez duen ereduia izan beharko du, eta gutxien duenari gehiago emango diona.

Askotariko eragileen adostasunaren ondorioa da, beraz, etorkizuneko hizkuntza-politiketan ikasteko eredu orokor gisa murgiltze- eta mantentze-eredua ezartzeko eskaera. Alta, adostasun zabal hori baliatuta, agerraldia egin zuen Kontseiluak abenduaren 16an, Gasteizko Europa Jauregian, hemengo hainbat eragilerekin: Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, Kristau Eskola, **Hik Hasi**, HEIZE, ELA, STEILAS eta LAB. Agerraldi historikotzat jo zen; izan ere, hezkuntzaren inguruko beste korapilo edo hari-muturretan eragileen artean desadostasun handi eta nabariak egon arren, erakutsi nahi izan zuten, euskarari dagokionez, aldarri bera dute: **hezkuntza-hitzarmenean berariaz jaso dadila hurrengo legeak ereduaren sistema baztertzaila gaindituko duela eta ikasle guztiei euskara-gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua ezarriko dela.**

Ausartegia dela pentsa liteke, baina uste dugu maila horretako adostasunik ez dela lortuko lege berria jorratzeko prozesuaren beste gaitetan; gainera, Kontseiluak erabakitasunez jokatu nahi du, eta adostasun horri eragile gehiago atxikitzeko lanketa berezituia egingo du, zertarako eta erabaki politikoa hartu dezaten eragiteko. Horrexegatik uste dugu beharrezkoa dela adostasun

soziala presio bihurtzea, alderdiek erabaki politikoa egokia hartu dezaten.

Ondorioa: ba al dago marra gorririk?

BAI, BADAGO. Euskarari dagokionez, murgiltzea eta mantentzea oinarri izango dituen ikasteko eredu orokortu inklusiboa ezartzea da marra gorria. Normalizazio-prozesuak dituen beharrez harago, lehen esan bezala, hezkuntza-sistemaren betebeharra da derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek gaitasun egokia izatea hizkuntza ofizialetan. Hortaz, iruzurra litzateke egun ikasle guztiak euskalduntzen ez dituen hizkuntza-ereduen sistemarekin aurrera egitea, lege-iruzurra, besteak beste.

Berdintasun-printzipioari jarraikiz, jatorriak, egoera sozioekonomikoak, egoera soziolinguistikoak edota bestelako irizpideek ezin dituzte baldintzatu ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak —ez hizkuntzaren arloan, ez eta beste ezagutza-arloetan ere—. Aitzitik, herritarren arteko bereizkeria handia litzateke jatorria, eremu soziolinguistikoa, egoera soziala edo bestelako irizpideren bat baliatzea, ikasleei euskara-gaitasun egokia eskuratzeko. Beste gai edo esparru batzuetan bezala, kasu honetan ere, berdintasuna bermatzeko oinarritzko bidea izan behar du gutxien duenari gehiago emateak. Horregatik diogu oinarritzko euskara-gaitasuna belaunaldi berri guztiei bermatuko dien eredu berri orokortua ezartzea dela aukerarik justuena eta berdinzaleena. Eta hori da, esan bezala, hurrengo hamarkadako hezkuntza-sistema arautuko duen legeari ezarri behar zaion marra gorria.

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, dei egin genien alderdiei, gure artean eraikitako adostasun sozialari atxikitzeko. Aukera historikoa dugu hezkuntza-sistema berdinzale, justu eta inklusiboa lortzeko. Aukera dugu euskararen normalizazio-prozesuari bultzada emango dion erabaki estrategikoa abian jartzeko. Beharrezkoa da lege berriak berariaz jasotzea ikasteko eredu orokortua jartzeko beharrari erantzuteko. Ondoren, bai, hitz egingo dugu nola ordenatu ereduia, zein epe-tan, zer egin egungo ikasleekin... Hori guztia etorriko da. Halere, ez dezagun aukera gal.

ARGITALPENAK



BEGIRATU DEZAKET ZURE PIXONTZIAN?

Guido Van Genechten

TTARTTALO

Xaguri inguruan dagoen guztia interesgarria iruditzen zaio, baita lagunen pixontziak ere. Lagunei ere Xaguren pixontzian zer dagoen jakiteko gogo sortuko zaie eta ezusteko handia hartuko dute. Izan ere, komuna erabiltzen ikasi du jada. A zer sorpresa hartuko duten bere lagunek!



TIK, BAKARRIK, TAK, IKARAK

Patxi Zubizarreta - Maite Gurrutxaga

IKASELKAR

Bat-batean, amona gaixotu egin dela-eta, etxean bakarrik geratu dira bi anai-arreba, beldurtuta. Tik, bakarrik, tak, ikarak. Denborak aurrera egin ahala, beldurra areagotu egin zaie eta horri aurre egiteko trikimailuak jarri dituzte martxan. Zeu bakarrik geldituko bazina nola sentituko zinateke? Tik, bakarrik? Tak, ikarak?



BIZIPOZA 2

Hainbaten artean

BIZIPOZA KULTUR ELKARTEA

Bigarren CD-DVDa kaleratu du Bizipozak. Hamaika kantu, hamaika bideoklip eta hamaika elkarteri egindako elkarrizketak jaso dituzte lanean. Aroa Elortza Payros Bizipozako kideak sarreran dio Bizipoza berotasuna eskaintzen duen etxea dela, atak beti zabalik dituen. Musikak eta hitzek ere lagunduko dute atehoriek zabaltzen.




IZOTZ URTZALDIA. GIZAJO BATEN EGUNKARIA

Jeff Kinney

ALBERDANIA

Elurraren ondorioz Gregen eskola ixten dutenean, auzoa neguko gudu-zelai bihurtuko da. Talde etsaiek, elur-gaztelu izugarriak eraikiko dituzte eta elur-bolen borroka epikoak antolatuko dituzte. Eta jomugan izango dituzte Greg eta Rowley Jefferson, haren lagunik onena.



LITERATURAREN DIDAKTIKAREN ERRONKAK XXI. MENDEKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Xabier Hernandez Llona

LABAYRU FUNDAZIOA

Literaturaren irakaskuntzaren egoeraren diagnostiko orokorra egin nahi du liburuak, literaturaren irakaskuntzatik heziketa literariorako oinarriak finkatzeko helburuz, hezkuntza komunitateetan aldaketa gauzatzen lagunduko duten alderdiak identifikatzeko.



(IA) GUZTIA MOZTU ETA ITSATS DAITEKE. ESTHER FERRER ETA DENBORA

Aintzane Usandizaga - Aran Santamaria

PAMIELA

Esther Ferrer artistak denboraren gainean egindako lanak modu jostagarrian ezagutarazi nahi ditu liburuak. Ferreren estetika gogorarazi dezakeen collagezko muntaia eta hitz dantzarien bidez, denbora harrapatzeko ahaleginean murgilduko da irakurlea orrialdeetan aurrera egin ahala.

PROPOSAMENA

Korrikaren unitate didaktikoak

Ikastetxe guztiek egin dezaten Korrika

"Euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko helburuarekin" eta AEK-ren herri ekimena zabaltzeko asmoarekin, ikastetxeetan lantzeko unitate didaktikoak prestatu ditu Korrikak Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen laguntzaz, Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarte. Iñaki Zapirain Retegi irakaslea da egilea eta, euskarri digitalean, baliabide ugari eskaintzen ditu mezua, omenduak, kantua eta beste ikasleekin lantzeko.

Haur, nerabe, gazte zein heldu, euskal herritar guzti-guztiak jarri nahi ditu korrika euskararen aldeko ekimenak. Korrikaren 22. ekitaldia martxoaren 31ean hasiko da Amurrión eta apirilaren 10ean amaituko da Donostian, baina Korrikak zeharkatuko dituen herrietako zein beste guztietako ikastetxeetara ere heldu nahi du bere mezuarekin "euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko", eta helburu horiek gauzatzeko, aurren beste behin, euskararen aldeko ekimena ikastetxeetan lantzeko unitate didaktikoak prestatu ditu Korrikak, Ikastolen Elkartearen laguntzarekin, "helburu berarekin diharduen AEK-k antolatutako Korrika ekimenaren zergatiak eta beharraz ohartarazteko" helburuarekin.

Iñaki Zapirain Retegi Orereta ikastolako irakaslea da unitate didakti-

koen egilea. **Hik Hasiri** aurreratu dionez, "aurreko ediziotako egitura bera izango dute, ikas-etapa edo adin tarteka banatuta". Berez bi asteko proposamena ondu dute, bi asteko iraupena baitauka Korrikaren kanpainak, alabaina, irakaslearen esku geratuko da unitate horiek kanpaina bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea: "Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitateak erabiltzeko garaian, jarduera gehienak solteak baitira".

Egiturari dagokionez, unitateak adinaren arabera antolatuta daude, "adin-tarte bakoitzari dagokion lan-keta proposatzen da". Haur Hezkuntzan edo Ama Eskolan lantzekoa; LH 1. zikloan 6-8 urtekoekin lantzekoa; LH 2. zikloan 8-10 urtekoekin lantzekoa; LH 3. zikloan 10-12 urtekoekin lantzekoa eta DBH eta Batxilergoan

12-18 urtekoekin lantzekoa.

Txikientzako lanketarako "aitzakia nagusia" Goiatz Labandibar idazleak berariaz Korrika 22aren unitate didaktikoetarako sortu duen ipuina nabarmendu du Zapirainek, *Pilota gorri batekin* izenekoa. Pilota gorria euskara bezalakoa da, ongi pasatzeko balio duena. Gaizka Chamizok kontatu egin du ipuina, eta bideoa ere ikusgai eta baliagai egongo da webgunean. Horrez gain, Korrika 22rako Sustrai Colinaren hitzekin Nerea Urbizuk sortu duen *Hitzekin* kantua-
ren koreografia ere sortu dute unitate didaktikoetarako, "tutorial eta guzti". Aurtengo unitateek jasotzen dituzten beste berrikuntza batzuen artean, Bingo musikatua, igorle sekretua eta *Hogeitabira* pilota partida nabarmendu ditu egileak.

Bigarren Hezkuntzari begira, *Korrika, historikoa!* izeneko kahoot jolasa




sortu dute, berrikuntza gisa. Halaber, aurtengo omenduei ere leku egiten diete unitate didaktikoek, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei. 34 urteotan “euskarari erakutsitako” konpromisoagatik omendu dituzte AEK-k eta Korrikak Lasarte-Oriako pailazoak, eta haurrei euren lana are gehiago ezagutarazteko baliatuko dituzte unitate didaktikoak.

Korrika 22,

Euskaratik haragoko irakasgaia

Proposatzen diren jarduerak, egileak zehaztu duenez, ez dira soilik

Euskara arloan egitekoak, plastika gelan, zein psikomotrizitate-gelan egiteko pentsatuak dira jarduerak batzuk, baina baita zeharka beste irakasgai batzuetan ere: “Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian”. Unitateak ere, arloz gaindi daude pentsatuak. Horrenbestez, garrantzitsua iruditzen zaio “irakasle taldeak unitateak aurrera eramateko planifikazioa egitea”.



Korrika 22ren unitate didaktikoak

Helbidea: korrika.eus/unitate-didaktikoak
(otsailaren erdialdetik aurrera)

Egilea: Iñaki Zapirain Retegi

Koordinazioa: Tito Serrano (AEK) eta Belen Baztarrika (Euskal Herriko Ikastolen Elkarte)

Ipuinaren egilea: Goiatz Labandibar

Ipuin kontalaria: Gaizka Chamizo

Ilustrazioa: Iñaki Zapirain Retegi

Koreografiaren egilea: Gema Ines

Diseinua: Arteman Komunikazioaren Artisaauak

Egitura:

Unitateak adinaren arabera antolatuta daude:

- Haur Hezkuntza eta Ama Eskoletan lantzekoa
- 6-8 urtekoekin lantzekoa (LH 1. zikloa)
- 8-10 urtekoekin lantzekoa (LH 2. zikloa)
- 10-12 urtekoekin lantzekoa (LH 3. zikloa)
- 12-18 urtekoekin lantzekoa (DBH eta Batxilergoa)

ATZEKO ATETIK



AZTERKETA-ALDIAZ

IRATI UGALDE MUNIOZGUREN
DERIOKO TXORIERRI INSTITUTUKO
DBHKO 4. MAILAKO IKASLEA

DBhko laugarren mailako lehen hiruhilekoaren amaierako azterketak jadanik igarota, atzera begiratzeko gogo sartu zait bat-batean, eta oso atsegina ez den gauza batez konturatu naiz: “azterketa-astea” deritzogun horrek ez du zentzurik, eta ez du inoiz izan.

Lehen, azterketa-aldia ebaluazio-amaierako azterketak egiten ziren astea zen. Ikasle nagusiagoak, gure adineko batzuen neba-arrebak, aste horretarako buru-belarri ikasten ikusten genituen, haien etorkizuna aste batean zituzten proben mende balego bezala. Hala ere, institutura sartu ginenean, mito bat zela pentsatu nuen. Lehen mailan geundenean, ikasturte amaierako azken azterketa orokorrean esaten zieten “azterketa-astea”, eta ezin nuen sinetsi proba gutxi horienatik ibiltzen zirela beste ikasleak hain kezkatuta. Konfinamendua pasatuta, laugarren

mailan gaude jada, konturatu gabe, baina tamalez egunero kontrolatuago gaudela ematen du, gure ikasketen gainean erabaki ezinik, egunerokotasun estandarizatu eta monotonoa hausteko aukerarik gabe.

Lau urteotan, ez dut aldaketarik ikusi, baina ez dut horretaz asko pentsatzeko aukerarik ez eta asmorik izan ere, orain arte. Koordinatzaileak asteko azterketa-egitaraua banatu zigun, eta ikasleen proposamenak ekiditen zituen. Gure esku egon beharko luketen edo, gutxienez, hitza izan beharko genukeen gaietan, guztiz ikusezinak gara, eta, askotan, zifra baten moduan agertzen gara datu-basean, koadernoetan eta espedienteetan. Horren ondorioz, galdu egiten da ikasle eta pertsona modura dugun balioa, eta ez zaio horri garrantzirik ematen.

Hezkuntza-sistemaren begietan batetik hamarrerako zenbaki bat besterik ez bagara, ez da harriztekoa

gauden moduan egotea. Estresa eta lo falta eguneroko lan-kargatik eta antolaketa eskasagatik ikasle askok jasaten ditugun arazoak dira. Azterketak, proiektuak, lanak, ariketak... Den-dena hartzen da kontuan gure etorkizuna markatuko duen zenbaki horretan. Denbora mordoa eman behar dugu lanean, eskola-orduek gain gure aisialdiko denbora ere horretan xahutuz. Azkenean, ikasketen inguruan eraiki behar izaten dugu egunerokotasuna, beste alderdi batzuetan, gizartean eta arlo pertsonalean, adibidez, geure buruak gartzeko aukera galduz, eta, aldi berean, gure bizitza akademikoaren inguruan eta azterketa-aldiko antolaketaren gainean erabakiak hartzeko aukerarik izan gabe.

Hau al da nahi dugun hezkuntza-sistema? Ikasleok, pertsona baino, zifra modura ikusten eta tratatzen gaituena? Gure ongizatean pentsatzen ez duena? Nik, behintzat, ez.

Jaso urtean lau zenbaki,
20 €-ren truke

Hazi Hezi

haziera eta heziketa
aldizkaria



Hazi Hezi eta **hik hasi**

familia eta eskola

heziketari garrantzia ematen diogunon komunitatea

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • www.hikhasi.eus

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

ipuina
+
diskoa



Ipuin honetan txoriez
eta kantuez ari gara,
edo norbanakoez eta hizkuntzez;
elkar-eraginaz, imitazioaz, hautuez.
Irakurri eta entzun,
memorizatu eta kantatu... jolastu!

www.katxiporreta.eus



Katxiporreta
KOOPE.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404